



Gora ihoteak!

Hiriberri, Ihabar, Iturmendi, Altsasu eta Olatzagutian ospakizunak / 18-30

2018-02-16 OSTIRALA / 629. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM



Joseba Yerro Izagirre dantzari altsasuarra Göteborgeko Operako Dantza Konpainian ari da / 2-3



Euskaraldia, 11 egunez euskaraz hitz egiteko ekimena, astelehenean aurkeztuko dute / 5

Ezkurdiak eta Zabaletak Bengoetxea VI.a eta Larunbe izanen dituzte gaur aurkari Altsasun / 12

Iganderako Elurraren Eguna antolatu dute Urbanen. Elurbusa eta ibilaldi gidatuak izanen dira / 15

Altsasuko gaztetxean bertso saioa, gaur / 31

Arakilen hirigintza plan berria dute / 5



Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU Nola hasi zinen dantzaz?

Lehenengo urratsak Altsasuko Dantza Eskolan egin nituen. Zazpi urterekin hasi nintzen euskal dantza egiten. Ballet klasikoa ere egin nuen, baina oso gutxi. Uste dut hiru urtez aritu nintzela Altsasuko Dantza Eskolan eta gero utzi nuen. Beste zaletasun batzuk nituen buruan. Hamaika urte nituenean Iruñeko Dantza Eskola batera joan nintzen, eta bertan balleta ikasi nuen.

Zergatik dantza?

Gogoratzen dut txikia nintzenean asko mugitzen nintzela. Dantzatzea asko gustatzen zitzaidan. Etxean betidanik musika oso presente izan dugu. Gurasoek, goizero, musika jartzen zuten eta musika oso garrantzitsua izan da. Beraz, etxean asko dantzatzeko nuen, eta egun batean Irantzu Gonzalez Azpirozek esan zidan Iruñera joan behar zela dantza eskolak ikustera eta ideia hori sartu zitzaidan buruan. Pentsatu nuen nik ere nahi nuela hori egin. Gurasoei esan nien eta gurasoek ez zuten inolako arazorik jarri. Zuzenean Almudena Lobon dantza eskolara joan nintzen amarekin informazioa hartzera. Joan nintzenean nire ideia zen jazz dantza egitea eta Almudenari esan nion. Berak esan zidan ea zergatik ez nuen balleta egiten. Eta balletean apuntatu nintzen. Azkenean ez nuen jazzik egin eta balletarekin buru-belarri jarri nintzen.

Umea zinela hasi zinen, mutila izateagatik arazoak izan zenituen?

Arazoak izan ditut, ez dakit horregatik izan daitekeen edo ez. Orain normalagoa da, baina ni ume nintzenean ez zen normala mutil bat, herri txiki batean, dantzara joatea. Eta batzuetan bai. Nire amak beti kontatzen dit egun batean nire amonak Altsasuko eskolara entsegura eraman ninduela eta emakume batek, ama batek, esan ziola bere mutilak dantza egiten zuela, eta ez omen zen arraroa. Beraz, bai, arazoak



UTZITAKOA

"Dantza terapia bat da"

JOSEBA YERRO IZAGIRRE DANTZARIA

Mugimendua eta dantza barruan daukan zerbait da. Dantza Garaikideko goi mailako ikasketak egin ondoren, European zehar hainbat konpainiatan dantzari izan eta gero Goteborgeko Operako Dantza Konpainian ari da. Gizakiak mugitzeko eta dantatzeko ahalmena duela dio.

izan ditut, edozeinek bezala arazoak izan ditut nire bizitzan. Nik oso garbi neukan zein zen nire bidea, banekien zer egin behar nuen eta zer ari nintzen

egiten. Oso intuitiboa izan naiz beti. Orduan, ez dut esan nahi komentario horiek berdin zitzazkidalako, baina nire bidea jarraitu nahi izan nuen, eta

horrela izan da. Jendeak bere prozesua izango du konturatze-ko eta pentsatzeko. Beraien kontua da, ez nirea.

Orain nola bizi duzu?

Orain gauza normalagoa da. Uste dut kontzientzia handiagoa dagoela, baina lan gehiago egin behar da. Azken finean nik pentsatzen dut denak gizakiak garelako, eta gizakiok mugitzeko sena dugula. Berdin dio mutila, neska, emakumea, gizonezkoa... Generoak berdin dio. Denok erritmoa jarraitzeko ahalmena dugu, zerbait naturala da, inkontzientean dago.

Gizartea da mugak jartzen dituen.

Eta hezkuntza. Esan bezala gauza normalagoa da eta dantza eskolatan mutil gehiago ikusten dira. Ni hasi nintzenean eskolatan 200 bat dantzari zeuden eta zortzi mutil ginen. Orain uste dut gehiago daudela.

Almudena Lobon dantza eskolan hasi zinen. Hor jakin zenuen dantzaria izan nahi zenuela?

Bai. Baina ez zen izan egun batetik bestera. Ni lasai hasi nintzen. Astero egun batean joaten nintzen Iruñera. Balleta egiten nuen eta hurrengo aste-ara arte ez nintzen joaten. Gero ikusi nuen Almudena egun gehiago eskatzen zizkidalako, orduan nik bere plana jarraitu nuen. Eta iritsi zen momentu bat, 16 urte edo izango nituen, oraindik Altsasun bizi nintzen, gero Iruñera joan nintzelako, gauzak argiago nituena. Ikusten nuen asko disfrutatzen nuela eta diziplinak plazera ematen zidala. Azkenean bide hori jarraitu nuen. Baina ez zen inoiz planeatuta izan: ez nuen esan dantzaria izan nahi dut eta horregatik dantza eskola batera joan nahi dut. Normalean nire buruan gauzak antolatzen ditut eta nire gorputzak bide bat jarraitzen du.

Goi mailako dantza ikasketak egin zenituen?

Almudena Lobon dantza eskolan dantza klasikoa ikasi nuen. Hamaika urte nituenean hasi nintzen eta hemezortzi urte nituenean batxilergoa eta selektibitate egin ondoren Barzelonara joan nintzen Institut del Teatre kontserbatoriora. Bertara joan nintzen dantza garaikidea ikasi nahi nuelako.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE



UTZITAKO

Estatu espainiarrean ez dago dantza gradurik edo unibertsitate ikasketarik. Beraz, dantza ikasteko leku hoberena kontserbatorioa da. Unibertsitateak bezalakoak dira.

Zergatik aukeratu zenuen dantza garaikidea?

Dantza klasikoa ikasten ari nintzenean ikusten nuen gus-tatzen zitzaidala, baina ez nuen nahi horretan gelditu. Dantza klasikoa egiteko oso gorputz jakin bat izan behar duzu eta nik hasieratik ez neukan gorputz hori. Ez zitzaidan asko gustatzen profesionalki ibiltzeko. Nik ikusten nuen naturalki mugitzea gustatzen zitzaidala. Behin Iruñean inprobisazioa erabili genuen eta oso normala zela ikusi nuen. Dantza garaikidean inprobisazio asko egiten ditugu eta oso bide interesgarria zela iruditu zitzaidan. Ez dizkiolako gorputzari mugak jartzen. Dan-

tza klasikoak gorputza mugatzen du oso mugimendu jakinak direlako: lehenengo posizioa, bigarrena... eta hortik aurrera ezin zara atera. Urrats batetik bestera joan behar zara. Dantza garaikidean, aldiz, grabitatearekin lan egiten duzu, sentimenduekin, gorputz sentsazioekin... askoz presenteagoa eta osasuntsuagoa da. Buruarendako ere askeagoa da. Askeagoa sentitzen zara. Beraz, ideia hori sartu zitzaidan eta Madrilgo kontserbatorioan audizioa egin nuen eta hartu ninduten, baina azkenean Bartzelonara joan nintzen hangoa hobea iruditzen zitzaidalako.

Dantza garaikideko goi ikasketak egin zenituen. Estilo horretan gelditu zinen?

Bai. Dantza garaikidearen barruan estilo asko daude, baina esan dezakegu dantza garaikidean geratu nintzela.

Non aritu zara?

Bartzelonatik Herbehereetara joan nintzen, Maastrichtera. Lau hilabeteko proiektu bat egitera joan nintzen. Bertatik Göteborgera joan nintzen, Suediara, beste proiektu bat egitera, baina ez orain nagoen lekura. Ondoren Cardiff-era joan nintzen Galeseko dantza konpainia nazionalen urte eta erdi baterako. Handik Göteborgeko Operara joan nintzen.

Eta han jarraitzen duzu.

Eta han jarraitzen dut. Göteborgen bi urte daramatzat. Göteborgeko Operan lan egiten dugu, baina ez ditugu Operak


egiten. Izena Göteborgs Operans Danskompani da eta itzulpena Göteborgeko Operako Dantza Konpainia da, beraz, dantza garaikideko ekoizpen edo proiektuak egiten ditugu. Normalean hiru programa egiten ditugu denboraldi batean, eta proiektu bakoitzak hamar edo hamabost emanaldi izaten ditu. Proiektu bat egiten dugu, estreinaldia egiten dugu, hamabost emanaldi eskaintzen ditugu eta hurrengo ikuskizunarekin hasten gara. Proiektu bakoitzean koreografo bat dago. Kanpoko koreografoak izan ohi dira eta Operara etortzen dira gurekin lan egiteko. Horrela prozesu bakoitza desberdina da. Bakarra bihurtzen da.

Arrakasta duzue?

Dantza garaikidea ez da horren arrakastatsua dantza klasikoarekin alderatzen badugu. Dantza klasikoan Beltxargen aintzira edo Loti Ederra eta horrelako ikuskizun garrantzitsuak eta ospetsuak daude. Baina dantza garaikidean sorkuntza berriak dira eta jendeak ezagutzen ez duen zerbait da. Zailagoa da jendea antzeztokietara erakartzeko. Hala ere, esan beharra daukat aurten arrakastatsua izan dela.

Zer da zuretzako dantza?

Terapia bat da. Bizitzako oso zutabe garrantzitsua izan da nire lagun eta gurasoekin batera. Nire munduan dantza betidanik izan da, momentu txarrenetan terapia izan da. Gauzak prozesatzeko eta gauzak



ERKUDEN

DANTZA GARAIIKIDEAN GRABITATEAREKIN LAN EGITEN DUZU, SENTIMENDUEKIN.

DANTZA GARAIIKIDEAN SORKUNTZA BERRIAK DIRA ETA JENDEAK EZAGUTZEN EZ DUEN ZERBAIT DA

beste modu batera ikusteko ezinbestekoa. Dantzari esker gauzak beste modu batean ikusten ditut. Jakin dut ez dagoela modu zehatzik gauzak ikusteko, modu asko daudela. Pertsonekin erlazionatzeko modua ere... Dantza oso garrantzitsua da zabaldu ere egin naudelako.

Dantzak ere diziplina eta sakrifizioa eskatzen du, ezta?

Betidanik diziplina handia izan dut. Ume nintzenetik. Niretako arazo handiena sakrifizioak edo utzi dudana izan da. Lagun asko

utzi ditut, ezagututako jende asko atzean uzten duzu. Bizimodu asko ezagutu ditut, baina agur asko ere esaten ditut. Batzuetan gogorra izan da. Etxerik ez edukitzeko pentsamenduak ere izan ditut. Inolako egonkortasunik ez izatea gogorra izan da. Ez da erraza izan. Baina bakoitzak prozesu desberdinak jarraitzen ditu, eta egiten dudanarekin pozik nago. Orain 27 urte ditut eta gauza hauek egin ditzaket, ikusiko dugu hogei urte barru.



ASTEKOA

MARIAN MENDIOLA BARANDALLA

Watzapatik dator notizia

Urrutitik etorri zait albistea, watzapatik, gertutik inoiz entzun ez dudana. Gure bailaran, XVI. mendean, ba omen zen ginekologian aritua eta aditua zen emakume bat, Martija de Jauregi. Beste batzuk sendatzailea edo petrikiloa zela esaten dute (sorgina, agian), kategoria gutxiagoko lanbide gutxietsia eta emakumeentzat aproposagoa. Inki-sizioak prozesatu zuen ginekologian eta medikuntza tradizionalan aritzeagatik eta arlo horietan zuen ezagutza zientifikoagatik.

Garai hartan ginekologia oso gutxi garatutako zientzia zen eta emakumeei zegoen erreserbatua. Baina, denborarekin osasuneko lanbideak profesionalizatzen hasi ziren eta horrek medikuntzaren maskulinizazioa ekarri zuen. Ordura arte emakumeek bete ohi zituzten ogibideetatik alboratu eta gainera ukatu egin zitzairen lanbide horietan aritzeko behar zuten tituluak eskuratzea.

Martija Iruñean eta Lizarraldean aritzen zen mediku, baina, Uharte Arakilera etorri zen eta bere bizitzako azken urteak Sakanako biztanleak artatzen eman zituen. Haren jarduerak Gipuzkoan ere ezagunak ziren eta hango bezero asko zituen. Belarrak biltzen zituen Aralarreko mendietan eta San Juan egunean bedeinkatzen zituen. Gero eta ospetsuago egin zen, harik eta inkisizio profesionalak intrusismoagatik auzipetu zuen arte. Emakume bat lanean aritzea desafioa zen mediku zientzia hasiberriarendako.

Eremu publikoan Martijak badu izena, Iruñeako Lezkairun “Pioneras edo Aitzindarien plazan”. Emakume honen ibilerak ere jasoak daude “Ellas, las mujeres en la historia de Pamplona” liburuan. Bere berri ere eman digu Iñaki Egañak “Mil noticias insólitas del país de los vascos” lanean, liburuaren izenburuan “y de las vascas” jartzea ahaztu bazaio ere. Andre honen iturritik edandako makina bat gehiago izan dira geroztik, Etxarriko Emañan etxeko emagina, esaterako. Jarrai dezagun gure memoriaren hutsuneak betetzen, beste hamaika watzapetan bederen.

GUTUNA

Sakana trenaren alde, Sakana bizitzaren alde

SAKANA TRENAREN ALDE
PLATAFORMAREN IZENEAN,
ESTHER ARREGI MENDIA, ARANTZA
IBARGOEN LIZARAZU, ARTURO CARREÑO
PARRAS ETA AINGERU MIKEO AZPIROTZ

Sakana Trenaren Alde plataformak tren sozialaren alde egiten duela esatean, gizartearen beharrari erantzuten dionaren eta ingurumenarekin errespetuz jokatzeko duenaren alde esan nahi du; gainera, garraioari ere irtenbidea eman behar dio (Europak Mediterraneo-Atlantiko garraio ardatza Iruñetik zehaztu du).

Sakanak, dagoeneko, badu trena hartzeko trazadura eta azpiegitura. Gainera, eskualde honetako orografia kontuan harturik, trazadura hori guztiz egokia da, behar diren hobekuntzak eginda, kalitate goreneko trena jasotzeko, (abiadura, garraioa, errail bikoitza, hirugarren erraila...); hurbileko eta urruneko zerbitzuei erantzuteko gaitasuna izan den duena.

Sakanarentzat, De la Serna ministroak, abiadura soilik aintzat hartuta, proposatu duen trazadura ezartzeak izugarritzko ondorio kaltegarriak izanen lituzke, bai arlo sozialean, eta baita ekonomikoan ere. Sakana korridorea izanik, aski zigortua dago azpiegitura ezberdinen bidez, eta trazadura berri horrek urbanizaturik gabe dagoen landa eremuari gogor eragingo lioke. Hartara, Sakana, azpiegitura handien artean itotako herrien segida izanen litzateke.

Hori horrela, jada zaila bada herrietan bizitzea, herritarrek galduko lituzkete horietan bizitzeko hain baliagarriak dituzten osagarriak. Abeltzaintzat, lur hoberentsuen galera, eta gainontzeko lurak lantzeko zailtasun eta nekeza.

Herritar ororentzat, aisiarako eta arnasbiderako edo lasaitasunerako baliatzen den natura-paraje ederra; eremu hori ezinbestekoa baita kirolerako, ibilaldietarako eta beste hainbat kontuetarako. Turismoaren arloarentzat, desastrea, Sakanak duen landa eremuko xarmaren

balioa galdu eginen lukeelako. Ekonomiaren beste esparruentzat ere gauza onik ez, AHT (abiadura) lehenesten duten azpiegiturek gune handienak mesedetzen dituztelako (Madril, Bartzelona, Bilbo?, eta tankera horretakoak); eta gainera, Donostian hilko litzateke, Pariserako biderik eginen ez delako.

Egoera horren aurrean, Sakanako herritarrok eskuak zabalik azaltzen gara tren sozialarentzat azpiegitura egokia mesedetzeko eta prest gaude horrek dakartzan ondorioak onartzeko. Baina, ez gaude prest Sakana larriki izorratuko lukeen inposatutako azpiegitura bat onartzeko, inola ere ez!

Laburbilduz, ez dugu nahi abiaduraren aitzakiaz gu zapalduz gainetik pasatuko den tren suntsitzailea. Horren orde, etorkizuneko trenaren parte izan nahi dugu. Horregatik, Nafarroako Gobernuari eta Parlamentuko alderdi politikoei eskatzen diegu aintzat har dezaten Sakanako errealitatea eta bertako bizitzaren alde egin dezaten.

HARA ZER DIEN

Elkartasun deia: Etxerat lagun

SAKANAKO ETXERAT ELKARTEA

Etxerat Elkartea 2002.urtean sortu zen, hainbat senide eta lagun lan, gogo eta elkartasunari esker. Azken finean, horixe baita elkartasuna, sinesten den zerbaiten alde lan egiteko gogo. Etxeraten, euskal

preso eta iheslari politikoei ahotsa ematen diegu eta ezkutatu nahi duten errealitate hori argiztatu eta zabaldu.

Gure jardun nagusiak asistentzia eta sostengua eskaintzea, izaten diren urraketa etengabeak salatzea, bisitak eskatzea eta beste modu batean bidaiatzeko aukerarik izango ez luketen pertsona eta familia ezberdinentzat furgonetak eta autobusak antolatzea dira. Jardun horretan gogor eta etenik

gabe jarraitzeko, ordea, zure laguntza beharrezkoa zaigu. Bide horretan jaio da Etxerat Lagun.

Etxerat Lagun ekimena Etxeratekiko elkartasun sentimenduak dituzten norbanako eta eragileak bilduko dituen ekimena da. Elkartea lagundu nahi duen edonor izango da Etxerat Lagun. Era asko daude laguntzeko: ekarpen ekonomiko batekin, baliabide edo ezagutzen bitartez, ekimenetan lagunduz...

Oraingoz, Etxeraten jarduna ziurtatzeko, helburu nagusia dirua batzea da, kuotakideak lortuz, eta horretara zuzentzen ari gara gure kanpaina. Hainbat bide dituzu Etxeratekin ekonomikoki kolaboratzeko. Eskuorria on-line betez, berau inprimatu eta posta arruntaz bidaliz, edota etxeratlagun@etxerat.info emaillean zein 646 02 88 84 telefonoan gurekin harremanetan jarritz.

Beste aukera bat da diru ekarpen bat egitea online <http://www.etxerat.eus/index.php/es/home/haz-donativo-es> helbidetik transferentzia bat eginez honako kontu hauetako baten bitartez: Laboral Kutxa (ES54 3035 0025 88 0250083941), Kutxabank (ES17 2095 5041 19 1062675540), La Caixa (ES42 2100 2403 89 0200174005).

Lotu elkartasunari! Etxean eta bizirik nahi ditugulako!

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gixane Andueza Goikoetxea
admin@guaixe.eus

Kolaboratzaileak:
Maialen Huarte Arano eta Erkuden
Ruiz Barroso
Zuzentzailea:
Patxi Flores Lazkoz
Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus
Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus

eta Eneida Carreño Mundifiño
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107
618 882 675
661 523 245

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Euskaraldia, Sakanako aurkezpena etzidamu eginen da

11 egunez euskaraz hitz egiteko gonbidapena da. Astelehenean, 17:00etan, Mank-en aurkezpena

SAKANA

Euskaltzale sakandarrak asteleheneko hitzordura gonbidatu dituzte Euskaltzaleen Topaguneak, Euskarabideak eta Sakanako Mankomunitateko Euskaraz Zerbitzuak. Epe luzeko Eus-

karak 365 egun leloko kanpainaren barruan dago Euskaraldia eta euskal hiztunen hizkuntza helburuak aldatzea du helburu. Euskaraldia, 11 egun euskaraz ekimenaren bidez Euskal Herri guztiko euskaltzaleak aktibatu

nahi dira egunerokoan euskaraz bizitzeko urratsak eman ditzaten. Erronka 16 urtetik gorakoendako izanen da: azaroaren 23tik abenduaren 3ra ahal den guztietan euskaraz hitz egitea.

Ekimena sakandar euskaldunei eta hizkuntza ulertzen dutenei zuzenduta dago. Aurrenak Ahobiziak lirarteke eta bigarrenak Belarriprestak. Batzuek eta besteak 11 egun horietarako konpromisoak hartuko dituzte. Horiek guztiak eta gehiago astelehenean aurkeztuko dituzte.



Euskaraldia behar bezala prestatzeko euskaltzaleak aurkezpena gonbidatu dituzte.

Arakilgo hirigintza plan berria jendaurrean

Udal plana jendaurrean bi hilabetez egonen da, arakildarrek agiria soseguz aztertu eta interesatuek egoki jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ditzaten. Arakil ibarreko hirigintza arautzen duen dokumentu berria 1994koa ordezkatzan du

ARAKIL

Nafarroako Aldizkari Ofizialak astelehenean argitaratu zuen Arakilgo hirigintza udal planaren berri. Arakil ibarreko hirigintza arautuko duen dokumentua jendaurrean bi hilabetez egonen da, jendeak hura aztertu eta egoki jotzen dituen alegazioak aurkezteko aukera izan dezan.

Arakilgo Udalak lastailaren 30ean hasiera batean onartu zuen hirigintza plana. Horrekin batera, erabaki zuen arau berriek egun indarrean dagoen hirigintzako araua aldatzen den eremuetan lizentzien ematea etetea, lizentziak eman ezin diren zein



Arakilgo ikuspegia Beriaindik. ARTXIBOA

hirigintza unitate diren ere zehaztu du.

Hasierako onespeneren eta jendaurreko epearen ondoren, behin betiko onartuko du udalak. Erabaki hori Nafarroako Gobernuari jakinaraziko zaio eta hark oniritzia ematen duenean indarrean sartuko da Arakilgo hirigintza plana. Udalak espero du udazkenerako indarrean egotea.

Prozedura

Arakilgo Udalak ibarraren hirigintza ordenamendua zehazteko parte hartze plana egin du aurretik. Helburua, arakildarrak informatzea, entzutea eta iradokizunak jasotzea zen. Kontzeju guztietan azalpenak eman ziren eta abeltzaintza, industria eta turismo sektoreetako ordezkariekin bildu ziren.

Behin hasiera batez onartuta eta bi hilabetez jendaurrean dagoela, kontzejuek herriarrei horren berri emanen diete. Paz Gonzalez Sagues alkateak azaldu digunez, "informazio publikoko epea bi hilabetekoa da jendeari denbora eman nahi diogulako eta informazioa jasotzeko uda-

letxera etortzeko aukera eman nahi diogulako.

Ezin berritu

Orain arte Arakilen indarrean egon den hirigintza plana 1994 urtekoa da. 24 urte ditu agiriak. Denbora tarte horretan aldian aldiko aldaketak eginez moldatu da Arakilgo Udalak.

Baina Arakilgo Udalaren nahia udal hirigintza plana lehenago berritzea zen. Nafarroako Gobernuak ezinezko egin zuen ordea. 2009ko garilean hirigintza plan berriko oinarri den Lurralde Okupaziorako Estrategia Eredua aurkeztu zuen. Bi urte geroago UPNren gobernuak atzera bota zuen, Abiadura Handiko Trenaren ibilbidea markatuta ez zegoelako. Azpiegitura berriarendako erreserba espazioak eta bestelakoak zehaztea eskatu zuen kontseilariak. Orduko alkate Javier Lazkoz Olaeaxeak nabarmendu zuen udalak Abiadura Handiko Trenaren egitasmoaren kontra zegoela eta Nafarroako Gobernuak teknika-rik egin ez zutena Arakilgo Udalekoek egitea ez zuela egoki ikusten gaineratu zuen.

**Ostiraleroko
SAIOA**
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara

Esataria: Eneida

Gaurko gaiak:

- Joseba Yerro Izagirre dantzariari elkarrizketa
- Jakin-mina hitzaldi zikloan parte hartu duten Altsasuko institutuko ikasleak
- Joseba Ezkurdia Altsasuko igandeko partidaz

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE



Altsasuko bilkuran Geroa Bairen eta PSNren botoekin onartu zen aurrenaren mozioa eta atzera bota EH Bildurena.

AHT udal bilkuran hizpide nagusi

Geroa Baik eta EH Bilduk Abiadura Handiko Trenaren (AHT) egitasmoari buruzko mozio bana aurkeztu zuten bilkuran. Aurrenekoenak egin zuen aurrera. Sakana Trenaren Alde plataformako bozeramaileak ere hitza hartu zuen bilkuran

ALTSASU

Tren azpiegituraren etorkizunari buruzko iritzia desberdinak azaltzeko balio izan zuten here-negun Altsasuko Udalean aurkeztutako bi mozioak. EH Bilduk bere idatzia bidez eskatu zuen Sustapen Ministerioak publiko egindako alternatiben kontra azaltzea udala eta ministerioari eskatzea pertsonak eta merkantziak garraiatzeko egungo trenbidearen aukerak egoki aztertzea.

Koalizioaren mozioaren alde egin zuen Goazen Altsasuk. "Faltan bota dugun bakarria herri-tarrei gaiaren inguruan kontsulta egiteko aipamena da". Bi taldeen aldeko bost botoekin eta

Geroa Bairen eta PSNren kontrako 7 botoekin mozioa ez zen onartu.

Bigarren mozioa

Geroa Bairen mozioa izan zen onartu zena, PSNren aldeko botoekin eta EH Bilduren eta Goazen Altsasuren kontrakoekin. Onartutakoaren arabera, Altsasuko Udalak errepedetik trafikoa kentzeko pertsonak eta merkantziak distantzia txiki, ertain eta luzeetan garraiatuko duen tren konponbidearen alde egin zuen. Horretarako, "epe luzerako ikuspegia" eskatu zuen, "nahikoa gaitasun izan eta Europako oinarritzko sareko estandarrak betetzeko". Horregatik, egungo

trenbidean aldirietako tren zerbitzua eta zenbait merkantzia garraiatzea proposatzen du, eta trenbide bikoitzeko prestazio handiko plataforma berria distantzia ertain eta handitan merkantziak eta pertsonak garraiatzeko izan dadila. Lanen eskumena Estatuarena dela gogorazti eta Nafarroako Gobernuari plataforma berriaren diseinuan eta gauzatzean "ahalik eta eragin handiena izan dezan" lan egin dezala eskatu dio udalak.

PSNk azken hori hitzarmen edo kudeaketa enkargu bidez lor zitekeela gaztigatu zuen, eta ekonomia adibidetzat jarritz, azpiegitura "ezinbestekoa" dela nabarmentzearekin batera.

EH Bildu argudiatu zuen aurreikusitako azpiegiturak ez duela "ezer ez konpontzen". Hura eraikitzekeela dirua egungo trenbidearen mantentzetik kenduko litzatekeela gaztigatu zuen. Egungo trenean ez dela inbertitzen nabarmendu zuen. Azpiegitura berriarekin "trenak pasatzen ikusiko ditugu, ez dira geldituko". Estatuarekin hitzarmena egin beharrean tren eskumena eskatzearen alde egin zuen.

Goazen Altsasuk galdetu zuen "Nafarroako Gobernuak badaki nafarrek behar eta nahi duten tren eredua zein den? Hala bada, jakinarazi dezala". Bestetik, "daturik baduzu ziurtatzeko lan horrek ez duela baliabideak urrituko?" Apustu egiten duten gizarte eta tren eredua argi izateko eskatu zuen, "distantzia ertain eta luzeetako loturetatik kanpo geldituz". Herrietan bizi nahia aurrerabidearekin bateragarria da, "formulak opatu behar dira".

Hitza hartu

UPNko zinegotzia plenoan ez zegoenez, ezin izan zen Sakana Trenaren Alde taldearen mozioa gai ordenean sartu ahal izan. Hala ere, bere ordezkari batek haren berri emateko aukera izan zuen. Mozioak bi eskaera zituen. Alde batetik, Espainiako eta Nafarroako Gobernuak eskatzen zaie "egungo trenaren trazatuaren hobekuntza egokiro azter dadin, egungo beharretara egokitutako tren bat lortzeko. Jendaurrean jarri diren alternatibak AHTri dagozkionak dira soilik". Horrekin batera, taldeak eskatu zuen AHTren proiektuaren tramitazioa bertan behera uztea Altsasun. Ados puntuetarako elkarriketa bidea zabalik mantentzea eskatu zuen.

Tortura, iluntasunetik argitasunera atera nahian

Ettxarri Aranazko Mikel Arregi plazan ekitaldia izanen da larunbatean, 12:30ean

SAKANA

Helburu horrekin antolatu dute Sakanako Sortuk eta Ernaik praktika torturaren kontrako ekitaldia. Horrela torturen ondorioz hildako Joxe Arregi (asteartean 37 urte) ere gogoratu zuten. Ekitaldia antolatu duten bi erakundeek jakinarazi dute 1960 eta 2010 urteen artean Sakanan 117 pertsonak salatu dituztela torturak. Batzuk behin baino gehiagotan, 135 kasu jasota baitaude. "Tamalez, gehiago izanen dira ziurrenik".

Sortuk eta Ernaik adierazi dutenez, "benetako erreparazioa eman dadin, tortura Estatu espainiarrak erabili duen metodo sistematikoa izan dela aitortu beharra dago. Bake prozesu integral bat bultzatu behar dugu, urte luzez modu kontzientearen estali diren egoerak ikus-araziz eta aitortuz, ez errepikatzea berma dadin. Militante politikook eta inork, halakorik berriro inoiz jasan ez dezagun". Ekitaldia egingen duten plazan lehen Guardia Civilaren kuartela zegoela gogorazti dute eta esan dutenez "Sakanak eta Euskal Herriak nahi duten etorkizuna, desmilitarizazioa eta askatasuna, iluntasunetik argitasunera salto egitea da".

Txalaparta

Taberna

948 467 070

Zumalakarregi plaza

ALTSASU

Elkartasun dantza

Dantza mugimenduekin elkartasuna adierazi zuten makina bat altsasuarrek larunbatean. Bigarren urtez jarraian Zortzikoa dantzatzu, elkartasuna adierazi zieten herritarrek Altsasuko Auzian auzipetuta dauden gazteei. Eguraldiak lagundu ez zuenez, kultur guneko zabalgunean dantzatu beharrean frontoian aritu ziren dantzan.





Uharteko dotrinaren zenbait orri.

Bonaparteren Uharteko dotrina sarean kontsultagai

Nafarroako Gobernuaren Artxibo Irekian 1800ean Uharteko euskaraz idatzitako testua jarri dute

UHARTE ARAKIL

Luis Luziano Bonaparte printzea (Napoleonen iloba) hizkuntzalaria zen, dialektologian espezializatutakoa. Hainbat hizkuntza ikertu zituen Bonapartek, tartean euskara eta euskalkiak. Berea da euskalkien aurreneko mapa eta beste 32 obra. Nafarroan 1857an, 1866an eta 1867an egon zen. Nafarroan barna ibili zen hartan Sakanatik ere pasa zen.

Hura hil ondoren, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako aldundiek haren eskuizkribuak erosi zituzten, eta haien artean banatu, lanaren jatorriaren arabera. Landa-lana egiteko Bonapartek garaiko pertsona ezagunekin eta herrietako apaizekin jarri zen harremanetan. Azken horietako askok, obra erlijiosoak euren herriko euskalkian idatzi eta gero Bonaparteri bidaltzen zizkieten. Horietako bat da Uharteko Arakilgo kristau-ikasbidea edo dotrina; 42 orriko dokumentua.

Nafarroako Gobernuak Bonaparte hizkuntzalariak XIX. mendean erdialdean euskarari nahiz euskalkiei buruz bildu zituen eskuizkribuen bilduma www.archivoabierto.navarra.es webgunean jarri ditu kontsultatzeko; 134 eskuizkribu dira guztira eta bakarra da Sakana-koa, Uharteko Arakilgoa.



Josefina Arregi klinikaren pasiloak. ARTXIBOA

Klinikako eguneko zentroko plaza gehiago kontzertatuta

Josefina Arregi klinikako 25 plazetatik 20 kontzertatu dira, "baina ez dira berehalakoan beteko". Zortzi daude


ALTSASU

Gizarte Eskubideen lehendakariorde Migel Laparrak pasa den asteazkenean jakinarazi zuenez, Nafarroako Gobernuak adineko pertsonendako plaza itunduen kopurua bikoiztu egin du eguneko zentroetan. Zentro horietako bat Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoa da.

Juan Manuel Vicente kudeatzaileak jakinarazi digunez, klinikak eguneko zentroan dituen 25 plazetatik 20 kontzertatzea eskatu zuten, baita onartu ere. Hala ere, Vicentek argi utzi nahi izan du 20 plaza horiek ez direla "berehalakoan" beteko. Azaldu digunez, "Nafarroako Gobernuak herrialde guztirako 120 plazako poltsa bat sortu du. Plaza bat husten denean, itxaron zerrendan dagoen denbora gehien daramatenek beteko dute, baina bere eskualdeko zentroan". Klinikari, momentuz, zortzi plaza

asignatuta dituzte, baina kopuruak gora edo behera eginen du plazak libre gelditzen diren heinean eta eskatzaileak gertukoak badira.

Josefina Arregi klinikako eguneko zentroak jardunaldi osoko (09:30etik 17:40ra) eta erdiko (09:30etik 13:00etara) eskaintzak ditu. "Gure berezitasuna da erabiltzaile bakoitzari mediku bat izendatzen diogula. Erizain batek sendaketak egiten ditu. Gainera, gaixo badaude, etor daitezke eta tratamendua hemen jarriko diogu, medikura joan behar izan gabe".



Udal musika eskolendako laguntzaren bigarren zatia jaso

Irurtzongo, Lakuntzako, Etxarriko, Altsasuko eta Olatzikoek guztira 72.021 euro jaso zituzten 2017an

SAKANA

Sakanako bost udal musika eskolek joan den urteko bigarren sei hilekoei dagokien diru-laguntza jaso berri dute. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak herrialdeko 51 udal musika eskolen artean 1.975.469,00 euro banatu zituen joan den urtean. Sakanako bost udal musika eskolek 72.021,95 euro jasoko dituzte. Kopuru hori 2016an musika eskoletara bost udalek egindako 325.992,41 euroko ekarpenaren % 22,09 da. Krisiarekin gobernuaren finan-

tziarioa jaitsi egin zen eta musika ikasketen diru-zama udalen eta familien bizkar gelditu zen. Hitzartuta zegoen finantziarioaren arabera gobernuak, udalek eta familiek musika eskolen aurrekontuaren herena ordaindu beharra zuten.

Udalek gobernuaren diru-laguntza bi zatitan jaso dute. Lastailean joan den urteko lehen sei hilekoari zegokiona eta orain bigarren sei hilekoari dagokiona. Ordainketa bakoitzean aitortutako diru-laguntzaren erdia jaso dute udalek.

Musika eskolen diru-laguntza

Udala	2. ordainketa	Guztira	Udalaren ekarpena 2016an
Irurtzun	9.752,74	19.505,49	32.999,15
Lakuntza	7.271,27	14.542,54	56.152,57
Etxarri Aranatz	8.574,34	17.148,69	33.000,00
Altsasu	8.286,37	16.572,74	186.940,69
Olatzagutia	2.126,24	4.252,49	16.900,00
Guztira	36.010,96	72.021,95	325.992,41



ZURE NEURRIRA EGINDAKO BIDAIAK

Apaolaza Autobusak
943.72.48.10

info@autobusesapaolaza.com
www.autobusesapaolaza.com

Sakanak 2.790 biztanle zitueneko azterketa

Jose Luis Erdozia Mauleon ikerlari etxarriarraren lana argitaratu du Principe de Viana aldizkariak. XV. mende hasieran Sakanak zituen demografia datuak aztertu ditu, ibarreko populazioan eragina izan zuten faktoreak gaineratuz

SAKANA

Duela 591 urte Sakanan 2.790 pertsona bizi ziren, gaur egun baino %86,17 gutxiago. Hori eta beste hainbat datu bitxi gehiago ematen ditu Jose Luis Erdozia Mauleonek *Zenbait datu demografiko Sakanan XV. mendearen hasieran* lanean. Nafarroako Gobernuak argitaratzen duen Principe de Viana aldizkariaren 268 zenbakiaren separata gisa argitaratu den lana.

Erdoziak biztanleriaren gora-beheretan eragin zuten faktoreak (izurriteak, gerrak, gaizkileen muga...) aipatzen ditu lanean. Demografia datuekin batera, datu geografikoak, ekonomikoak, historikoak eta onomastikoak eman ditu 45 orriko lanean.

Datuak

Egileak lehen-lehenik jakinarazi du Rafael Carasatorre Vidaurre historialari etxarriarrak documentanavarra.blogspot.com blogean argitaratutako doku-



Burundakoa ikuspegia. ARTXIBOA

mentu bat izan duela ikerketarako oinarri: *Libro de fuegos de la merindad de las montañas del año 1427*. Dokumentu horretan Sakana osoko datuak agertzen dira. Nahiz eta Etxarri Aranatz dagokionez, zenbait orri falta

diren. Beraz, Erdoziak berak aitoritzen duen moduan, populazioa 2.790 baino handiagoa izanzen litzateke. Su bakoitza etxe batekin lotzen da eta haietan zenbat bizi ziren jakitea ezinezkoa denez, adituen iritziei segituz, etxe bakoitzean lau pertsona biziko ziren hipotesiarekin lan egin du.

Arakilen, Aizkorbe eta Irañeta bitartean zeuden 16 herrietan (egun 12), 806 pertsona bizi ziren, % 35 (egun 3.304; % 16,36). Erdialdean, Uhartar Arakil eta Etxarri Aranatz artean 853 herritar bizi ziren, % 37 (egun 6.173, %30,58). Ez dira Arruazuko datuak agertzen. Eta, bukatzeko, Burundan 622, % 27 (egun 10.708, % 53,07).

1427ko datuak aurrekoekin alderatu ditu ere. Horrekin batera beste hainbat gauzaren berri ematen du ikerketak: izen erabilienak, landatzen ziren laboreak, mahastiak non zeuden, ordaindutako zergak eta beste.



Opatu zuten ingurua. @BOMBEROSNAVARRA

Hilik opatu zuten etxetik falta zen olaztiarra

Haren berririk 18:30etik ez zutela eta kezkatuta, Olatzagutiko familia batek 75 urteko gizoneko baten desagertzea salatu zuen asteazken arratsaldean. Egunean bertan, 22:30ean, senideak, Foruzaingoak eta Guardia Civilak bilaketa lanei ekin zieten. Lanak osteguneko 05:00etan eten zituzten, argitzearekin batera baldintzak hobetu eta berriro ekiteko. Atzo, 09:40 aldera, altsasuar batek tren geltoki ondoko ubide batean opatu zuen, hilik. Jende askok erabiltzen du inguru horretan dagoen bidea, Altsasu eta Olatzagutia arteko joan-etorriak egiteko. Guardia Civila ardurtuko da gertatutakoa ikertzeaz. Berri agentziek zabaldu dutenez, "heriotza ez naturala" izan zen.

Arbizuko udaletxeko gelak erabiltzeko modua zehaztuta

Arbizuko Udalak udaletxean dituen erabilera anitzeko gelak hobeki kudeatzeko asmoz eta arbizuarrei gelak eskatzeko modua errazteko, prozedura onartu du. Dagoeneko indarrean dagoen prozeduraren arabera, udaletxeko gelaren bat erabili nahi duenak eskaera orri bat bete beharko du, eskatzailearen datuak, ordutegia eta bestelako zehaztapenak emanez. Idatzia bete eta info@arbizu.eus helbide elektronikora bidali beharko da. Arbizuko Udalak eskaera jaso eta gehienez 24 orduko epean erantzuna emanen dio, posta elektronikoz edo telefonoz. Eskaerari baietza horrela emanen zaio. Beraz, udalaren erantzun hori jaso arte eskatzaileek ezin izanen dute ziurtatu gela erabiltzeko aukera dutela.

Herriaren etxeko gelak eskatzeko inprimaki hori udaletxeko bulegoan eskuratu daiteke, baita www.arbizu.eus web orrian, udala ataleko gelak eskatzeko inprimakien atalean.

AHTk kaltetutako bakaikuarrek batzarrera deituta

Sustapen Ministerioak Nafarroa eta Euskal Y Abiadura Handiko Tren (AHT) sareak Sakanan barna lotzeko proposamena egin du. Egitasmoa jendaurrean dago. Bakaikun proiektuak zuzenean ukitutako pertsonen, "kaltetuen" batzarra egingen da bihar, 18:00etan, Auzoan. Bileraren helburua alegazio berezi bat prestatzeko eta aurkezteko aukera lantzea da. Batzarrak ere zalantzak argitzeko balioko du.

Bestalde, "azpiegitura erraldoi eta inposatu horrek Bakaiku zuzenean larriki kaltetuko lu-keelako" eta jendaurreko epean gaudela baliatuta, Bakaikuko etxe guztietara banatu dituzte AHTren kontrako alegazio orokorra, edozein pertsonak sinatu dezakeena. Alegazio horren kopia gehiago udaletxean eta dendetan utzi dituzte, nahi duenak har dezan. Haiek sinatu eta hilaren akabera aurkeztu nahi dituzte, horregatik, sinatutako alegazioak udaletxean edo udal postontzian uztea eskatu dute.

Eguraldi onarekin heldu dira konponketak autobiarra

Sakanako Autobiako (A-10) erabiltzaile asko kexu agertu dira zoruan dauden zulo ugariekin

SAKANA

"Negua, muturreko tenperaturak, trafiko handia, elurra, gatzak, elurra kentzeko makinak...." Horiek dira autobiako zoruan zulo ugari sorrarazten dituztenak, Nafarroako Gobernu Kontserbazio Zerbitzuko Mendebaldeko Negoziatu arduradun Patxi Ruiz Urmendiak azaldu digunez.

Ruizek gaineratu digunez, "izan diren muturreko tenperaturekin, behin behineko konponketak besterik ezin izan ditugu egin". Gobernuko ordezkariak azaldu digunez, halakoak egiteko aglo-

meratu asfaltiko hotza erabiltzen dute. "Baina trafiko handiko errepideak direnez, ibilgailuek hura zapaltzean askatu eta berriro zuloak agertzen dira". Hala aurreko asteetan aritu direla gatzigatu digu, "asteburuan, esaterako, bi talde izan ziren lanean". Baina zuloak berriro agertzen ziren. "Aurretik ez da gertatu". Egoera N-121ean (Belate) berdina dela azaldu digu.

Errepideen kontserbazio arduradunak esan digunez, "behin betiko konponketa egiteko eguraldi onaren zain egon



Autobian sortutako zulo pare bat. FORUZAINGOA

gara. Atzo hasi ginen, gaur segituko dugu eta, iragarpenaren arabera, hurrengo astean ere segituko dugu".

Orain arte baino talde handiagoak ari dira lanean konponketetan. Lehenik zorua fresatu eta,

ondoren, aglomeratu asfaltiko beroa zabaldu eta egoki zapalduko dute. Oraindik zenbat metro karratu konponduko zituzten ez zekiela azaldu digu. Lehenasuna errepide sare nagusia dela ere nabarmendu du.



Jendea Etxarri Aranazko osasun etxean. ARTXIBOA

Pedriatria zerbitzua, atzera ere, Etxarriko osasun etxean

Hiru hilabete eta erdiren ondoren, familia mediku bat ariko da 4,5 orduz astegunetan

SAKANA

Etxarri Aranazko osasun eskualdea Lakuntza eta Urdiain arteko herriek osatzen duten. Hango haurren pediatra Etxarri Aranazko osasun etxean lan egiten du. 15 urte bitartean egiten die jarraipena haur eta gaztetxoei. Dagoenean, izan ere, joan den urteko lastailaren 23az geroztik pediatrarik ez da izan Etxarri Aranazko osasun eskualdean.

Osasunbideari gabezia konpontzeko eskaera behin eta berri egin dio osasun kontseiluak alkateen bidez. Ordezko pediatra edo, bestela, mediku bat jar zezatela eskatzen egon dira. Oinarrizko zerbitzu diren neurrian pediatría eta lehen arretako zerbitzu onak bermatzea eskatu dute. Aldi berean, Etxarri Aranazko osasun etxeko ordezkoren kontratazioari buruzko informazioa eskatu zuten ere.

Astelehenera arte, behin behinean, erizain batek eta mediku batek artatu dituzte umeak. Astelehenaz geroztik familia mediku batek pasatzen du kontsulta, astegunetan, 8:00etatik 12:00etara. Gainontzeko lanaldia Altsasuko osasun etxean osatzen du.

Horrekin batera, Nafarroako Osasun Zerbitzutik berriki jakinarazi dutenez, lanaldi osoan ariko den pediatra baten bila segitzen dute. Hartu duten neurriarekin "oraingoz osasun eskualdeko pediatría asistentziaren zati bat hobetzen dugu", hala azaldu diete alkateei.

Kexak

Osasun eskualdeetako udaletan zerbitzuagatik kexa asko jaso zituztelako Lakuntzako Patxi Xabier Razkin, Arbizuko Carmele Marañon, Etxarri Aranazko Eneka Maiz, Bakaikuko Egoitz Urriaza, Iturmendiko Bitoriano Gabirondo eta Urdiaingo David Oroz alkateek Osasunbideari eskaera gutuna zuzendu zioten. Aipatutako hiru aldarrikapenekin batera Etxarri Aranazko osasun etxean zegoen panoramaren berri ere ematen zioten Osasunbideako lehen arretako kudeatzaile Santos Induraini.

Alde batetik, kexu ziren alkateak "zailtasun handiak izaten ari direlako, orokorrean, medikuen ordezkapenak egiteko, bai zaintzetarako, baina batez ere gaixotasun bajak, oporrak eta bestelakoak egiteko". Horren ondorioz ere, etxeetara bisitak egin behar direlako, osasun etxean familia medikurik gabe gelditzeko aukera zegoela aipatu zioten Nafarroako Osasun Zerbitzuko buruari.

Etxarri Aranazko osasun eskualdeko pediatría plazaren jabe den osasun arloko profesionalak, antza, Iruñerrian beste plaza bat eskuratu du. Horrek Etxarri Aranazko lanpostua pediatra titularrik gabe utzi eta berriro jabetzan emateko deialdia ekarriko du. Lanpostu hori "erakargarriagoa" bihurtuko omen dela esan digute osasun etxean. Hori eta bestelako gaiak aztertzeke osasun kontseiluak heldu den asteazkenean bilera du.



Baratzekobide plazan dagoen lokomotoran ostegunean zabaltzen dute informazio bulegoa eta 30 bat pertsona pasatzen dira.

565 erabiltzaile ditu 5. edukiontzia dagoeneko

Altsasun dauden 3.778 etxebizitzaren % 14,95ek bere materia organikoa edukiontzi marroietan uzten du. Helburua da urte akaberarako gaika herriko hondakinen % 65 jasotzea. Hori lortzeko Altsasuko etxebizitzaren % 60k eman behar du izena

ALTSASU

Atzo hilabete bete zen Sakanako Mankomunitateko Hondakinen Zerbitzuak Altsasun 5. edukiontziko lehen bilketa egin zuenetik. Ordutik 5. edukiontzia erabiltzeko izena eman duten Altsasuko etxebizitzak 565 dira, herrian dauden 3.778etatik % 14,95 Kopuru horri konposta etxean egiten duten 141ak eta auzo-konpostagailuak erabiltzen dituzten 50ak gehituz gero, kopurua % 20,01 da.

Mank-ek hilabetean 9.000 kilo materia organiko jaso ditu. Hala ere, Altsasun hondakinen gaikako bilketan zein eragina duen "momentuz" ez dakitela azaldu digute, "hileroko datuak lortu ditzakegu, baina ezarri zenetik ez da hilabete oso bat pasa. Eta beste enpresek jasotzen dutenaren daturik ez". Hala ere, aitortu du, Altsasun 5. edukiontzian jasotako materia organikoaren kalitatea "oso ona" dela.

Izena emateko

Etxeko materia organikoa gaika bildu eta gero bosgarren edukiontzian utzi nahi dutenek 900 730 450 doako telefonora hots egin dezakete. Gainera, Hondakinen Zerbitzuko hezitzaileak Baratzekobide plazako lokomotoran izanen dira ostegunetan, 10:00etatik 13:00etara. Informa-

zioa ematen dute, izen-emateak ere eta hala egiten dutenei 5.

edukiontzia erabiltzeko kit-a banatzen diete.

EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ

Sakanako aurkezpena

Otsailaren 19an (astelehena)

17:00etan
Sakanako Mankomunitateko egoitzan (Lakuntzan)

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 16

UHARTE ARAKIL AHTr buruzko informazio hitzaldia.
19:00etan, udaletxea.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.
19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.
20:00etan, udaletxe parean.

IRURTZUN *Un beso antzezlan* eskainiko du Ttanttaka antzerki taldeak.
21:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Sakana Zirt eta Patioko banda taldeen bertso saioa, Bardoak 2018 ekimenaren barruan.
21:00etan, gaztetxean.

ALTSASU *Que baje dios y lo vea* filmaren emanaldia.
22:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 17

ALTSASU Altsasu eta Lizarra arteko 95 km-ko joan-etorria egingen dute Barranka Txirindulari Taldeko errepide atalekoek.
9:30ean, San Juan plazatik.

ETXARRI ARANATZ Sakanan 117 #aztnugal. Tortura iluntasunetik argitasunerako ekitaldia antolatuko dute Sortuk eta Enai.
12:30, Mikel Arregi plaza.

ALTSASU Inauteri festa eta afaria.
17:00etan, Intxostiapuntan.

ARBIZU AHTr buruzko informazio hitzaldia.
18:00etan, Argi Bidea elkartearen.

BAKAIKU AHTk kaltetuen batzarra.
18:00etan, auzoan.

ALTSASU Friday's crew eta Bultz taldeen kontzertuak.
22:30ean, gaztetxean.

IGANDEA 18

SAKANA Hondarribia eta Pasaia arteko mendi ibilbidea egingen du Sakanako Mendizaleak taldeak.
07:00etan, Olatzagutiatik abiatuko da autobusa.

ALTSASU Lizarran 46 km-ko joan-etorria egingen du Barranka Txirindulari klubeko mendi-bizikleta taldeak.
07:30ean, klubeko bajeatetik.

ALTSASU *Sola en casa* filmaren emanaldia.
17:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU *Que baje dios y lo vea* filmaren emanaldia.
19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 19

ALTSASU Pentsio duinen alde! Nafarroako Pentsionistak Martxanek 1.080 euroko pentsioa eta beste aldarrikatuko ditu.
12:00etan, Foru plazan.



ALTSASU Altsasuko inauteriak erakusketa prestatu du Inauteri batzordeak. Otsailaren 18ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 17:30etik 21:00etara, lortia kultur gunean.



ALTSASU Etorkizuna dantza eskolaren 25. urteurren erakusketa. Otsailaren 22tik martxoaren 11ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 17:30etik 21:00etara, lortia kultur gunean.

SAKANA Euskaraldia, 11 egun euskaraz. Sakanako aurkezpena egingen da.
17:00etan, Sakanako Mankomunitatearen egoitzan.

ASTEAZKENA 21

ALTSASU AHTr buruzko informazio hitzaldia.
19:00etan, Gure Etxea eraikinean.

OSTEGUNA 22

ALTSASU *Tres anuncios en las afueras* filmaren emanaldia.
19:00etan, lortia kultur gunean.



info@dekovenavarra.com
www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



IRAGARKI SAILKATUAK

IKASTAROAK

Estresa jasaten ikastea tutoriala. Cedema Garalur, Arbizun. Marxoaren 6an, asteartea, 10:00-12:00. Bultzatzaile, PYME eta autonoentzat. Izen-ematea 619 328 264 eta sakana. admon@cedema.es

Elikadura eta ariketa fisikoa 2. motako diabetesean. Irutxungo udaletxean, Osoko bilkuren aretoa. Marxoaren 5ean, 7an, 13an eta 14an, 17:00-19:00. Aurretik izena eman behar da 848 42 34 50 telefonora deituz 8:00etatik 15:00ak arte edo www.escueladepacientes.navarra.es webgunean. Doan eta erdaraz dira.

Munduko sukaldaritza. Altsasuko Intxostiapuntan, Javi "Trapero"-ren esku. Otsailak 21, martxoak 21 eta apirilak 11, 18 eta 25. 24 euro 8 saio.

OHARRAK

Sakana Trenaren alde. Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da. Behin behineko biltokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilerak.

Odol-emaileak. Altsasu: Otsailaren 27an eta 28an, 17:00-20:30. Marxoaren 1ean, 17:00-20:30; marxoaren 2an, 9:30-13:00

Etzarriko irakurle taldea. Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi-
ren, Elsa Sheelen (1969 Lur) liburuari buruz hizketatzera elkartuko da udal liburutegian marxoaren 15ean, ostegunean, 19:00etan.

Otdako ermitaren alde. Eraikina konpontzeko diru

bilketa egiten ari dira. Ekarpenak parrokian edo herriko banku eta kutxetan zabalduko kontuetan sartu daitezke.

Enplegarritasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresarien Elkartek langabeei eta lan bila dabilenentzako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Pab) telefonoetara hots egin dezatela.

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek dituzte: diruzorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon la-

gunta behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cedema-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sendotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cedema.es edo sakana.admon@cedema.es

GoiEner Iruñean. Landarek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zailantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2100 2173 87 0200346965

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta iheslariak aldeko abenduaren 30eko ekimenean parte hartu zuten gazte sakandarrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119

www.iragarkiaburak.es

JAIOTZAK

- **Maddi Berastegi Gorriti**, otsailaren 8an Arbizun.
- **Mairu Etxart Vegas**, otsailaren 9an Altsasun.
- **Aratz Goñi Lopez**, otsailaren 9an Olaztin.

EZKONTZAK

- **Lorena Arangoa Zabaleta eta David Ramirez Valera**, otsailaren 7an Irurtzun

HERIOTZAK

- **Celestina Rodriguez Jimenez**, otsailaren 9an Altsasun.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA..

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKIAK@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

- GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen

gorabeheren erantzukizunik. **ORDAINTZEKO ATALAK:**

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta Guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Aste batez 3 euro, bi astez 6 euro eta hiru astez 8 euro (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

URTEURRENA

Kruzi Lakuntza Mendinueta

I. Urteurrena

Bere aldeko meza, igandean, otsailak 18, goizeko 11etan, Arbizuko elizan izanen da.



Ahazten ez dena
ez da inoiz hiltzen

Zure familia


ESKELAK JARTZEKO:
948 56 42 75

edo.eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80 € / 130,68 €
prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek %10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna:
Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.


EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 16




Temperatura balio nahiko handiekin igaroko dugu eguna, hego haizeaz lagunduta. Ateri helduko dio egunak, baina gau partean tanta batzuk bota ditzake.

Larunbata, 17




Haizeak iparralderantz biratuko du eta ondorioz, euria izango da eguneko protagonista. Temperaturak, aldiz, pixka bat jatsi arren, tenperatura leuna izango dugu.

Igandea, 18




Igandean ipar haizearekin jarraituko dugu, baina ez dira prezipitazio handiak espero. Tanta batzuk bota ditzake. Gau partean, tenperaturaren beherakada nabaria izango da.

Astelehena, 19



Egun nahasia izango da asteko lehen eguna, euri tanta batzuk, eguzkia eta hodeiak txandakatuz joango dira egun guztian zehar, baina eguzkia gailenduko da.



40 tanatorios
IRACHE
aniversario
Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- 948 19 70 70
- @Grupolrache
- Grupolrache
- www.tanatoriosirache.es

Ezkurdia: "Tentsioa mantendu beharra dugu"

PILOTA Binakako hasierako ligaxkako bi jardunaldiren faltan, badakigu zein lau bikotek jokatuko dituzten finalerdiak. Tartean daude Ezkurdia-Zabaleta eta Altuna III.a-Martija. Lehenek etzi jokatu dute, Altsasun, Oinatzan eta Larunberen kontra

Badakigu zein lau bikotek jokatu dituzten Binakako Pilota Txapelketako finalerdiak: Elezkano II.a-Rezustak, Altuna III.a-Martijak, Olaizola II.a-Imazek eta Ezkurdia-Zabaletak. Hortaz, hasierako ligaxka despeditzeko 2 jardunaldiren faltan, dena erabakita dago. 2012 urtetik, hasierako ligaxkako bi bueltako sistema ezarri zenetik, hau gertatzen den lehen aldia da.


Hurrengo bi jardunaldiek emoziorik ez dutela izango, hori da enpresen kezka, baina Altuna III.ak eta Martijak Bengoetxea VI.aren eta Larunberen kontra asteartean jokatu zuten partidak erakutsi du hori ez dela horrela izango, partida ikusgarrian Altunak eta Martijak partidari buelta ematea lortu baitzuten, 17 eta 22 irabazteko. Hortaz, emozioak jarraitzen du, bikoak klasifikazioan zein postuetan sailkatzen diren baitago jokoan, horren arabera zehaztuko baitira finalerdietako parekatzeak.

Sailkapena

Sailkapenean, Elezkano II.a eta Rezustak 10 puntu dituzte, Altuna III.a-Martijak 9 puntu, Olaizola II.a-Imazek eta Ezkurdia-Zabaletak zazpina puntu, Urrutikoetxea-Galarzak 5 puntu, Laso-Albisuk eta Irribarria-Merino II.ak launa puntu eta Bengoetxea VI.a-Larunbek 3 puntu.

Altuna: "finalerdietara sailkatu izana lorpen handia da guretako"

Altunak eta Julen Martijak Olaizola eta Imaz izango dituzte aurkari larunbatean Labriten. Asteazkenean egin zuten material aukeraketa, eta txapelketak emozioari eusten diola aipatu zuten pilotariek. "Asteartean erakutsi genuen moduan, topera aterako gara, eta galtzen badugu, ez da izango tentsio faltagatik. Partida zaila dugu aurretik. Finalerdien aurretik ez da



Joseba Ezkurdiak eta Zabaletak atzo aukeratu zuten igandeko materiala.

"TENTSIOA MANTENDU BEHARRA DUGU AZKEN BI PARTIDA HAUTETAN, SENTSazioak HOBETZEN JOATEKO"

komeni tentsioa jaistea" aipatu zuen Altunak. Gipuzkoarrak nabarmendu zuen "lorpen handia" dela bera eta Martija finalerdietara sailkatu izana. "Txapelketa hasieran inork ez zuen gugatik ezer gutxi ematen. Martijarengan konfiantza handia nuen, baina, egia esan, ez nuen uste horren ongi erantzungo zuenik" aitortu zuen Altunak. Izan ere, aurtan debutatu du Etcheberrikoak Binakakoan, eta sekulako maila ematen ari da.

Ezkurdia eta Zabaleta etzi Altsasun

Binakako 13. jardunaldiko partida bat Altsasun jokatu da, igandean. Joseba Ezkurdiak eta Jose Javier Zabaletak etxean jokatu dute, Burunda pilotalekuan, Bengoetxea VI.aren eta

Larunberen kontra. Finalerdietarako sailkatuta daude baina euren zortzigarren puntua lortu nahi dute sakandarrek. Bere aldetik, txapelketa itxura hoberekin despeditu nahi dute Oinatzek eta Larunbek eta ez dute ezer oparituko. Sarrerak erreserbatzeko 661 259 009 telefonora hots egin daiteke (Olaia).

Ezkurdia: "Altsasun dena emango dugu"

Atzo egin zuten igandeko partidako pilota aukeraketa Ezkurdiak, Zabaletak, Bengoetxea VI.ak eta Larunbek. Asegarcetik Ruben Beloki eta Aspetik Jon Apezetxea eta Jokin Etxaniz zituzten ondoan. Azkar hautatu zituzten pilotak eta Martin Alustizak aurkeztutako materialean bilatzen zutena aurkitu zutela adierazi zuten pilotariek.

Finalerdietarako sailkatuta izanagatik pozik daude arbizuarrak eta etxarrendarra. Binakako azken bi jardunaldiek emoziorik izango ote duten ala ez galdetuta, eurak "berdin" jolastuko dutela aipatu zuen Ezkurdiak. Txapelketa guztian barna inten-

Binakakoa: 13. jarduna

Asteburuko Binakako partidak

- **Laso-Albisu / Irribarria-Merino II.a** (ostiralean, 20:30ean, Hendaian. ETB1)
- **Olaizola II.a-Imaz / Altuna III.a-Martija** (larunbatean, 17:00etan, Iruñean. ETB1)
- **Urrutikoetxea-Galarza / Elezkano II.a-Rezusta** (larunbatean, 17:00etan, Bilbon)
- **Bengoetxea VI.a-Larunbe / Ezkurdia-Zabaleta** (igandean, 17:00etan, Altsasun. ETB1)

tsitate eta tentsio hori mantendu behar dugu, baina publikoari begira, nolabait erakargarritasun hori galdu egiten da; ez da berdin zerbait jokoan egotea edo erabakita, baina gu Altsasura dena ematera etorriko gara, partida ona eskaintzera, pilota zaleak gustura geratu daitezen".

Sentsazioak hobetu

Arbizuarrak gaineratu zuen oraindik hobetzeko tarte dute. "Guk gurea egin beharra daukagu, azken partidetan bezala. Oraindik hobetzeko tarte dugu eta hori garrantzitsua da. Txapelketa hasieran sentsazioak txarrak ziren, baina bigarren bueltan bikotea egiten gaude, lehiatzen ari gara eta hori da gure helburua, azken bi jardunaldi hauek tentsioarekin jokatu, sentsazioak hobetzen joateko eta finalerdietara ongi iristeko" nabarmendu zuen.

Altsasuko partida "zaila" izango dela uste du arbizuarrak. "Partida ona egin beharko dugu irabazteko aukerak izateko. Beraiek goraka doaz, hobe dabilta azken jardunalditan. Bengoetxea denok ezagutzen dugu, zein klase daukan eta zenbat jokatzeko duen eta Larunbe ere jotzaile ona da. Guk gurea ongi egin beharko dugu. Ea bi aste hauetan ongi jokatzeko dugun, ongi sentitzen garen eta sentsazioak hobera doazen, finalerdietara ongi iristeko" aitortu du Joseba Ezkurdiak.



Irurtzun klubeko pilotariak.

PILOTA Irurtzunek Zazpi Iturri aurkari EHko final handian

Igandean Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketa Nazionalako final handia hartuko du Tolosako Beotibar pilotalekuak, 17:30ean. Finalerdietan Hernani bidean utzi zuen Irurtzun klubak eta Ultzamako Buruzgain mendean hartu zuen Amezketak Zazpi Iturri jokatu dute finala. Ikusmina handia da.

Partida estuak

Xabier Zubiria, Ioritz Egiguren eta Peru Labaka-Julen Aizpuru izango dira Zazpi Iturri taldeko pilotariak eta Alberto Ongay, Anartz Olano eta Mikel Olazabalos Bergera Irurtzun klubekoak. Lau t'erdian, buruz buru eta binaka aritu beharko dute. Ea txapela Sakanara ekartzen duten.

PILOTA Promesetan Bakaikoak eta Etchegoinek galdu

Promesen mailako Binakako Pilota Txapelketan, Joanes Bakaikoak etxarriarrak eta Etchegoinek Darío eta Irusta izan zituzten aurkari Labriten. Azkenean Darío eta Irusta gailendu ziren, baina ederki kostata, Bakaikoak eta Etchegoinek ongi aritu zirelako.

Txapelketako sailkapenari begira, Agirre eta Iturriaga dira liderrak, 5 punturekin, eta Bakaikoak eta Etchegoinek puntu bakarra dute, aurrera egiteko aukerarik gabe. Promesen Binakako hasierako ligaxkako 6. jardunaldian, gaur, ostiralean, Hendaian, Gorkaren eta Salaberriren kontra ariko dira Bakaikoak eta Etchegoinek.

Etxeberria eta Gonzalez Palmako podiumean

PISTA TXIRRINDULARITZA Josu Etxeberria Espainiako Pista Kopan hirugarrena sailkatu da eta Bakarne Gonzalez Koparako baliagarria zen Palmako Torneoa bigarrena sailkatu zen eta Kopan laugarrena

Asteburuan Espainiako Pista Kopako hirugarren eta azken proba baliagarria jokatu zen, Palmako Pista Torneoa. Nafarroako selekzioarekin Josu Etxeberria junior iturmendierra, Bakarne Gonzalez junior altsuasuarra eta Martxel Etxeberria kadete iturmendierra lehiatu dira, Gudane Araiz eta Sergio Aliagarekin batera.

Josu Etxeberriarendako ez da asteburu gozoa izan. Bera eta Javier Serrano madrildarra ziren junior mailako Espainiako Kopako liderrak, biak 26 punturekin, baina Balear Irletako Albert Rierak sorpresa eman zuen Palman eta, nahiz eta li-



Josu Etxeberria, Gudane Araiz eta Bakarne Gonzalez, trofeoeekin. NAFARROAKO FEDERAZIOA

derrek baino 10 puntu gutxiago izan, Palmako Torneoa irabazteaz gain, Espainiako Kopa lortu zuen (32 puntu). Serranok eta Etxeberriak ez zuten puntuatu, eta bigarrena eta hirugarrena sailkatu ziren, biak 26na punturekin. Hortaz, Espainiako Kopako hirugarrena dugu Iturmendiko gaztea.

Bestetik, Bakarne Gonzalezek Palmako Torneoko bigarren postua lortu zuen, eta Espainiako Kopako junior mailako emakumezkoen fondisten mailan laugarrena sailkatu zen Altsasukoa (19 puntu), Euskadiko selekzioko Naia Amondarain txapeldunetik (37 puntu) 15 puntura. Eta, bukatzeko, aipatzekoa da Martxel Etxeberria kadeteak aurtan debutatu duela Nafarroako selekzioarekin eta behetik gora egin duela Iturmendiko gazteak, scratch eta puntuazio probetan bereziki. Espainiako Kopako fondista kadeteen sailkapen orokorrean 22.a sailkatu da Martxel.

Taldeakako txapelketan Euskal Federazioa izan da txapelduna (42 puntu) eta Nafarroako federazioa 10.a sailkatu da (6 puntu).

Desfibriladore ikastaroa antolatu dute Dorraon

KIROLDEGIA Martxoaren 20an eta 21ean izanen da, Sakanako Mank-ek antolatuta

Sakanako Mankomunitateak, Ergoienako Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, desfibriladore ikastaroa antolatu du Dorraon. Ikastaroa martxoaren 20an eta 21ean eskainiko da, 16:30etik 20:30era bitartean, eta izena ematea zabalik dago Sakanako Mankomunitatean edo Ergoienako Udalean (kirolak@sakana-mank.eus edo 948 464 866, idazkaritza@ergoiena.com edo 948 460 141).

Helburua ergoendarrei desfibriladorea erabiltzen irakastea da, edozein ustekaberen edo bihotzekoren aurrean, ongi erantzuten jakiteko.



Sakanako Mendizaleak taldea.

MENDIA Hondarribia-Pasaia, Sakanako Mendizaleekin

Sakanako Mendizaleak taldeak prest dauka otsaileko irteera: igandean, otsailaren 18an, Hondarribitik aterata, Pasaiaraino heltzea izango da helburua, paisai zoragarrietan barna. Autobusa igandean goizeko 6:30ean abiatuko da Olaztitik. Izena ematea ohiko tokietan egin behar da. Bestela, 639 11 76 31 telefonora hots egin daiteke tokia dagoen galdetu eta apuntatzeko.

Book Tube ak egiteko

KEDADA
DBHko ikasleendako



Martxoaren 2an

Arratsaldeko 6etan

Ziordiko liburutegian

Izena eman

ziordialib@cederna.es

helbidera mezua bidalita



Antolatzailea:

Mank
s a k a n a

Laguntzailea:

ZIORDIKO LIBURUTEGIA

Atsedena dia eta gero, bueltan da futbol liga

FUTBOLA Lagun Arteak, Etxarri, Altsasuk eta emakumezkoen Altsasuk etxean jokatu dute

Aurreko asteburuan Nafarroako Futbol Ligan ez zen jardunaldi-rik jokatu, inauterien geldialdiagatik, baina asteburu honetan berriro martxan da liga.

Preferente mailan, Lagunak taldea da liderra (36 puntu). Lagun Arteak 12.a da (15 puntu) eta Etxarri Aranatz 16.a (13 puntu). Larunbatean Etxarri Aranatzek Lagunak liderra hartuko du, 16:00etan, San Donato zelaian eta igandean Lagun Arteak etxean jokatu dute, baina Itxesalde zelaian, 16:00etan, sailkapenean hirugarrena den Donezteberen kontra. Partida zailak dituzte aurretik, beraz, gure bi taldeek.

Bi talde altsasuarrek Dantzalekun jokatu dute

Erregional mailan, Pamplona B taldea da liderra (33 puntu) eta Altsasu seigarrena da (26 puntu). Hain zuzen ere asteburu honetan liderraren kontra aritzea dago Altsasuri. Altsasun piñata inauteriak direnez, larunbata goizera aurreratu dute partida, 13:00etara.

Etxean jokatu dute ere Emakumeen erregional mailan dabilen Altsasuk. Berriozar (49 puntu) da Emakumeen Erregionalen liderra eta Altsasu 14.a da (11 puntu). Altsasuk sailkapenean 11 punturekin 13.a den Burladés hartuko du larunbatean, 16:00etan, Dantzalekun. Sailkapeneko postua da jokoan dagoena. Ea altsasuarrek sailkapenean igotzea lortzen duten.

Elomendiko Txapelketa

Elomendiko Futbol Txapelketan 14. jardunaldia jokatu zen. Arakilgo Zalduak eta Bidezarrak bana berdindu zuten. Unziti da liderra (40 puntu) eta Zalduak laugarren postuan jarraitzen du (24 puntu). Asteburuan Zalduak, Lekunberrin jokatu dute 13 punturekin sailkapenean zazpigarrena den Izalsaren kontra.

Elurraren eguna igandean Urbasan

ESKIA / ERRAKETAK / MUSHERRAK Ipar eski eta erraketa ibilbideak, musherren erakustaldia lerako txakurrekin eta norbera bere kabuz Urbasan ibiltzeko aukera izango da. Elurbuserako eta ibilbideetarako Sakanako Mankomunitatean eman behar da izena

Elurra dagoela eta eguraldi egoia iragarri dutela aprobetxatuta, Sakanako Mankomunitateak igandean Elurraren eguna antolatu du Urbasan. Horretarako, Urbasa-Andia Ipar Eski Lagunak, Altsasuko Mendigoizaleak, NafarMushing txakur lera kluba, Bidelagun eta Nafarroako Gobernua talde eta erakunde laguntza izan du.

Elurbusa

Elurraren egunaz behar bezala disfrutatzeko, iganderako Elurbusa antolatu dute. Urbasan sortzen diren aparkatzeko arazoak saihesteko dira horrela. Autobusa Altsasutik aterako da, Suhiltzaileen egoitza paretik, goizeko 8:30ean eta 10:30ean. Itzulera orduak 12:30ean eta 14:00etan izanen dira, Urbasako kanpinetik. Nahi izanez gero, interpretazio zentroan eta Otxoportilloko pista hasieran ere igo edo jaitsi ahal izango dute izena ematen dutenek. Autobusa dohainik da, eta libreki doana bere ardurapean joango da.

Ibilbide gidatuak eta beste

Elurraren egunari esker, ondo jarduerak egiteko aukera izango da Urbasan: ipar eski eta erraketa ibilbideak (maila ezberdinak), musherren erakustaldia lerako txakurrekin eta, horretaz gain, norbera bere kabuz egin ahal dituenak: Urbasan paseoak egin, trineoekin ibili, argazkiak atera, paisaiak gozatu... nahi dena.

Ibilbide gidatuak egiteko aukera izango da, eski edo erraketekin (8 euro, aseguru barne). Ibilbide hauek egin nahi dituztenek goizeko 8:30ean hartu beharko dute autobusa. Aldiz, erraketa edo ipar eski hastapen ikastaroa egin nahi dutenek 10:30etarako autobusa ere hartzeko aukera izango dute, baina aurrez izena eman beharko dute, Mank-en.



Mankomunitateak Urbasan eski ibilaldia egiteko antolatutako irteera bat. ARTXIBOA

URBASA-ANDIA IPAR ESKI LAGUNAK TALDEAK 8 URTE DARAMATZA ESKI PISTAK PRESTATZEN

Antolakuntzatik adierazi dutenez, eskiak eta erraketak alokatzeko aukera eskaintzen du Tolosako Oargi Mendi elkarteak (943 675 612) eta erraketak alokatzeko Iruñeko Basati Kirolak dendak (948 212 345).

Eski ibilbideak

Urbasa-Andia Ipar Eski Lagunak taldeak 8 urte daramatza Urbasako Otxoportillon ipar eskia egitea ahalbideratzen. "2010ean eman ziguten baimena. Urbasa Andia Natur Parketik konfirmatu ziguten elurra edo izotza egiten duenean Otxoportilloko errepidea trafikoari itxita gertatzen dela. Horrela, elurra zapa-tzeko makinak prestatu genituen eta, ordutik, Nafarroako Gobernuaren baimena eskuetan, nahi duen orok eskiatu ahal izateko pista prestatzen dugu" azaldu dute elkarteak.

Otxoportillotik Eskizako sa- roira bitarteko 5 km-ko pista prestatzen dute makinekin, eskiatu edo lera txakurrekin ibili ahal izateko. Eta pista edo senda nagusi horri lotuta, bi ibilbide zirkular prestatu dituzte, gune batean bat egiten dutenak. Zortzi bat osatzen dute, eta horregatik 8 deitzen diote. Lehen eraztunaren ibilbidea 11 km-koa da, joan eta etorri, eta bigarrena 15 km-koa.

Bestalde, erraketekin egiteko ibilbide zehatz batzuk markatu dira, askotan jendeak ez dakielako nondik ibili. Lehen ibilbidea 3 km eta erdikoa, joan etorrian, bigarrena 7 km-koa, joan etorrian eta hirugarrena 11 km-koa, joan eta etorri.

Mankomunitateak seinaleak errespetatu eta elurra dagoenean Otxoportillon ez sartzeko deia egin die ibilgailuei, eski pistak ez apurtzeko.

Izena emateko

Elurbuserako eta ibilbide gidatuak egiteko izena ematea zabalik dago gaurko 14:00ak arte, Mankomunitatean (948 464 866, kirolak@sakana-mank.eus) edo egunean bertan autobusean.

SAKANAKO TOPAKETAK

BENJAMIN MAILAKO TOPAKETAK

IGANDEAN ETXARRIN

10:00 Etxarri Aranatz A – Aralar Mendi
10:50 Etxarri Aranatz B – Lagun Arteak B
11:40 Altsasu A – Lagun Arteak A
12:30 Altsasu B – Sutegi
13:20 Altsasu D – Altsasu E

KIMUEN MAILAKO TOPAKETAK

IGANDEAN, URDIAINEN ETA ALTSASUN

10:00 Lagun Arteak – Etxarri Aranatz (Dantzalekun)
11:15 Sutegi – Kaixo (Dantzalekun)
12:30 Urdiain – Tipi Tapa (Urdiainen)

Sakanako Futbol Topaketak bueltan Inauterien atsedendiaren ondoren, Sakanako Futbol Topaketak bueltan dira. Zehazki, igandean Benjaminen Areto Futbol Topaketen 6. jardunaldia erabakiko da Etxarri Aranatz eta Kimuen Futbol Topaketen 11. jardunaldia Urdiainen eta Altsasun.

Jakina denez, Sakanako Mankomunitateak antolatzen ditu topaketak, Sakanako futbol taldeen laguntzarekin. Helburua txikienei futbol partidetan aritzeko baliabideak ematea da, baina lehiakortasunik gabe. Horregatik ez da sailkapenik egiten.

SASKIBALOI CBASK, Senior Autonomikoko ligako lider berria

Aurreko asteburua Santa Ageda zenez, asteburu horretan jokatu beharreko partida Eguberrietara aurreratzea eskatu zuen Senior mailako gizonezkoen 1. Senior Autonomikoko mailan dabilen Altsasuko CBASK taldeak. Eskaria aintzat hartuta, abenduaren 30ean jokatu zuten CBASKek eta Sanduzelaiko Payvi Tabernak, Altsasuko CBASK taldearen aurkezpen festa eta Marin Memorialean, hain zuzen. Partida estu eta ederrean, 70 eta 64 irabazi zuen talde altsasuarra.

Etzi Larraona du arerio

Garaipen horri eta arerioek izandako emaitzei esker, sailkapen orokorrean lider berria da CBASK, 27 +3 punturekin, Liceo Monjardin baino puntu bat gehiagorekin. Igandean, 20:15ean, Larraona kiroldegian, sailkapenean hamabigarrena den Larraona B taldearen (14-3 puntu) kontra jokatu dute altsasuarrek. Ea lidergoari eusten dioten.



Olga Garziandia, podiumean. UTZITAKOA

IPAR ESKIA Olga Garziandia 3.a Donostiako Trofeoan

Asteburuan IX. Donostia Ipar Eski Trofeoa jokatu zen Piriñietan, Urdosen. Olga Garziandia etxarriarra 10 km.ko distantzia lehiatu zen eta sailkapen absolutuan 9.a sailkatu zen (48:20). Hirugarren emakumea izan zenez, podiumera igo zen etxarriarra. 16 km-ko proba absolutuan, Bernar Garziandia 22.a sailkatu zen (1:11:13).

Aralar txirrindularitza taldearen aurkezpena

TXIRRINDULARITZA Aurreko urtean baino 10 txirrindulari gehiago trebatuko dira Aralar klubean, 53 guztira. Igandean egin zuten 2018ko denboraldiaren aurkezpena, Arbizuko San Juan ermitan. Denboraldiari ekiteko "gogotsu" daude

Igande hotzean, prakak eta jertsea kendu eta poz-pozik argazki kameraren aurrean jarri ziren Aralar txirrindulari eta entrenatzaileak, izan ere, denboraldi aurkezpenek beti dute festa ukitu hori. Guztiak zeuden, Josu eta Martzel Etxeberria izan ezik; Palman zeuden, Espainiako Pista Kopan (ikus 13. orria).

Lakuntzan sortutako txirrindularitza taldeak 38 urte beteko ditu aktibo eta 53 txirrindulari trebatuko dira. Iazko denboraldia ikusgarria izan zen eta aurtengorako ere ilusio handia dute.

Betiko helburuei eusten diete, "kirolari onak eta pertsona ho-



Arbizun egin zuten aurkezpena.

beak trebatzea, kopa eta dominen gainetik pertsonak garelako talde hau osatzen dugunok". Alfonso Tadeok jarraitzen du presidente. Javier Etxarri lehendakariordea da, Maria Asun Erdozia idazkaria da, Laura Sainz diruzaina eta Alberto Martinez, Edurne Arkauz, Edi Cerviño, Juanjo Erdozia, Josune Zabala, Nerea Bergera, Marixa Zabala eta Josetxo Astitz bokalak.

Lekunberrin, Etxarrin eta Lakuntzan eskola mailako 3 proba antolatuko dituzte, eta, horretaz gain, Emakumeen Lakuntza lasterketa eta kadeteen proba, Lakuntzan.

ARETO FUTBOLA Asier Llamasek Xotarekin kontratua berritu du

Asier Llamas atezain irurtzundarrak bere herriko eta betiko taldean jarraituko du, lau urtetarako kontratua berritu baitu Osasuna Magna Xotarekin. 24 urte dituen Irurtzundarrak adierazi du "harro" dagoela "bere etxean" jarraituko duelako. Taton Arregi presidenteak adierazi duenez kontratu hau "aski ongi merezita" irabazi du Asierrek, eta taldeak bere egiturari eustea "ezinbestekoa" dela.

Cartagenaren kontra, gaur

Europako Txapelketako hilabeteke etenaren ondoren, asteburuan itzuliko da Lehen Mailako Areto Futbol Liga. 21. jardunaldian, 43 punturekin sailkapenean 4.a den Osasuna Magnak 29 punturekin 8.a den Cartagena hartuko du gaur, 20:30ean, Anaitasuna pabilioian.

Aurreko astean Osasuna Magnak eta Rios Renovables Zaragozak jokaturako lehiaren bosna berdindu zuten bi taldeek.

53 txirrindulari trebatuko dira Aralar Klubean

Igandean Aralar Txirrindulari Taldeak 2018 denboraldiaren aurkezpena egin zuen Arbizun. Aurten 53 txirrindulari trebatuko dira, aurreko urtean baino 10 gehiago. Denboraldia hasteko irrikaz, kadeteak eta juniorrak entrenatzen dabilta eta eskolakoen entrenamenduak martxoan hasiko dira. Betiko helburuei segiz, "kirolari onak eta pertsona hobeak trebatzea" hori da euren lehentasuna. Aurten bost proba antolatuko dituzte Sakanan, tartean Emakumezkoen Lakuntza lasterketa.



• **Juniorrak:** Bigarren urtekoak: Beñat Etxezarreta, Imanol Galarza, Xabier Mauleon, Unai Lizarraga, Josu Etxeberria, Iker Cerviño, Javier Mitxaus, Andoni Urrea eta Ander Rosado. Lehen urtekoak: Urko Gorriti eta Inhar Astitz. Entrenatzaileak: Edi Cerviño eta Miguel El Rio.

• **Kadeteak:** Bigarren urtekoak: Aitor Alberdi, Asier Irujo, Igor Arrieta eta Mikel Lizasoain. Lehen urtekoak: Jon Erdozia eta Martzel Etxeberria. Entrenatzaileak: Javier Etxarri eta Edi Cerviño.

• **Eskolak:** **Haurrak:** Mikel Ilegi, Alex Lopetegui, Aimar Tadeo eta Asier Iturrioz, bigarren urtekoak, eta Manex Zufiaurre, Naia Perez, Achraf Sbai, Aritz Oiarbide, Anartz Garcia de Albeniz eta Xabier Ilegi, lehen urtekoak. Entrenatzaileak: Alberto Martinez eta Juanjo Erdozia. **Kimuak:** Aritz São Roque, Joritz Arratibel, Bakarne Arregi, Alain Rosado, Eñaut Oiarbide eta Leire Urtasun, bigarren urtekoak, eta Oier Irujo, Ibai Arana eta Oihan Gorriti, lehen urtekoak. Entrenatzaileak: Mikel Oiarbide eta Alfonso Tadeo. **Hasiberriak:** Janitz Zufiaurre, Joseba Perez, Manex Huarte, Luca Martinez, Aimar Azanza, Ekain Navarro, Aratz Lizarraga eta Lier Berdugo, bigarren urtekoak, eta Adur Lizarraga, Unax Etxeberria, Ekai Erdozia, Urko Oiarbide, Julen Ruiz de Erenxun, Garbiñe Arregi eta Ion Unai Gonzalez, lehen urtekoak. Entrenatzaileak: Jon Arregi eta Bautista Urtasun. **Promesak:** Xabier Gorriti eta Nagore Azanza. Entrenatzaileak: Txomin Huarte, Joseba Lizarraga eta Xabier Etxeberria.



Joan dira kinto ospakizunak

Uharte Arakil eta Ziordia bitartean, zortzi herritan, kinto ospakizunak izan ziren asteburuan. XX. mendeko azken kintoak izan ziren festako protagonistak, nahiz eta haiekin batera, beste kintadek ere festaz gozatu zuten hainbat herritan.

Altsasun opilak kintoen diru-iturri dira.



Etxajuak ezin falta kinto ospakizunetan.



Han goiti, han beiti. Bakaikuarak herri guztian barna ibili ziren kintoak dirua eskatzen.



Iturmendiko kinto segizioa bost urte desberdinetan jaiotako gazteek osatzen dute.



Arbizuko kintoek ostiralek asteartera arte ospatu zuten festa.



Kinto lakuntzarrek bonboaren laguntzaz nabarmendu ziren eskean ari zirela.



Kinto etxarriarrak Tolosatik bueltan herrian eskatzen ibili ziren asteartean.



Altsasuko kintoak dantzan.



Laura Zubieta Sesma Uharteko kintoa ihote ospakizunetan.



Ziordiko kintoak musikariekin batera eskean ibili ziren larunbat goizean. Asteburuan parrandan ibili ziren.



Urdiaingo kinto segizioak parrandan etena egin zuen talde argazkia egin geniezaien.



Altsasuko plazan ez zen sokadantzarik falta.



Altsasuko kinto kuadrilak 79tan dantzatu du Zortzikoa, dantzan majo dakitela erakutsiz. .



Oraindik inauteritan gaude!

Ez gorde moxorroa, oraindik ere inauteriez eta ihoteez gozatzeko aukera baitugu Sakanan. Hausterrea pasatu zen, baina Hiriberrin, Ihabarren, Iturmendin, Altsasun, Olaztin eta Ziordian... oraindik inauterietan murgilduta daude.

HIRIBERRI

Aitittarkok sutan bukatuko du bihar

Bihar, larunbatean, otsailaren 17an ospatuko dituzte inauteriak Hiriberrin. Eguerdian, 12:30ak aldean, Txitera elkartean bilduko dira, poteoan eta txistor-jatean. Ondoren, 13:30ean herrian barna kalejira egingo dute momororreak eta Aitittarkok. Urtero legez, sutan bukatuko du Aitittarkok. Ondoren, herri bazkarian bilduko dira hiriberriarak Txiteran, eta bapo bazkaldu ondoren musera eta bingora jolastera animatuko dira arakildarrak. Parrandak aurrera jarraituko du eta gazteetako askok Altsasuko bidea hartuko dute, bertako piñata inauteriez gozatzera.

IHABAR

Ihote asteburu potoloa Ihabarren

Asteburuan inauteri ospakizunak nagusi izanen dira Ihabarren. Bihar, larunbatean, goizeko 11:00ak aldera, baserritarrez jantzitako gazteek puska-biltzea egingen dute herrian barna. Jasotako jakiekin biharko eta etziko bazkariak prestatuko dituzte. Ihote-segizioa osatuko duten herritarrek Gure Kabiya elkartean bazkalduko dute. Mahaitik jaso eta, 18:00ak aldera, momorroak etxez etxeko erronda hasiko dute. Haiekin topo egiten duenak zigor kolperik jaso nahi ez badu, korrika ihes egin beharko du. Suko-hautsarekin, lokatzarekin edo dena delakoarekin zikintzeko ohitura ere badute. Errondaren

ondoren, afaria eta dantzaldia izanen dituzte.

Inauteriko bigarren eguneko ospakizunak bazkari ederrarekin hasiko dituzte ihabardarrek. Urtean behin bisitatzen dute Ihabar Aitezarkoak, Landarrak eta Niniak. Eta familiarekin batera, hartzak. Laurek, moxorreak eta txistulariek segizioa osatuko dute. Ibilbidea plazan bukatuko da. Epaia Aitezarko sutan erretzera zigortuko du. Landarrak, espantuka, negar batean, hartuko du epaia. Gaizkiarenak egin ondoren, denendako otamena izanen da.

ITURMENDI

Mozorrotuen bazkaria, kalejira eta txokolate-jana, bihar

Iturmendin inauteriak ospatuko dituzte bihar, larunbatean. Bazkaldu baino lehen mozorrotuko dira iturmendiarrak, Aitzkozar elkartean bapo-bapo bazkaltzeko. Ondoren, Iturmendiko kaleetan barna buelta emango dute mozorrotuek, kalejira ikusgarrian, eta, bukatzeko, txokolate-jana izanen da.

ALTSASU

Irudimena dantzan: piñata mozorro festa handia Altsasun

Momotxorreak, Juan Trampo-soek, maskaritek eta herri inauterietako gainontzeko pertsonaiek natura esnatu zuten asteartean; eurak erretiratu dira eta Garizuman gauden honetan, hiri-inauteri edo piñataren txanda izango da bihar Altsasun.

Lagun koadrilek azken egunotan pentsatu eta erabakitako mozorroa nola gauzatu duten ikusteko tenorea da biharkoa. Gehienak eguerdi partean aterako dira kalera, Foru plazara.

Haize Berriak bandakoez ikuskizun ederra prestatu dute: musikaren doinuei jarraiki, Gobern Catalaren desfile handia hartuko du Altsasuk. Hain zuzen ere, Kataluniak presentzia handia izango du eta *Sardanas y castells* ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da. Ondoren, egun eta gau guztian barna luzatuko da piñatako parranda.

PIÑATAKO EGITARAU

OTSAILAK 17, LARUNBATA
12:30 Gobern Catalaren desfile handia Haize Berriak bandarekin.

13:30 *Sardanas y castells* ikuskizuna Foru plazan.

17:00 Mozorrocall Intxostiapuntan.

18:00 Inauteriaren jaitsiera Sakarangkak lagunduta Intxostiapuntatik Foru plazara.

20:00-22:00 Dantzaldia Nueva Alaska taldearekin Foru Plazan.

22:00 Gazte afaria Intxostiapuntan (3 euro).

22:30-00:45 Diskoteka Intxostiapuntan.

24:00-03:00 Dantzaldia Nueva Alaska taldearekin Foru plazan.





OLAZTI

Koadrilek eta karrozek Olazti girotuko dute

Aurreko asteburuan herri inauteriak ospatu eta gero, bihar hiri inauterietan murgilduko dira olaztiarrak. Olaztin oso gustuko dute mozorratzea, eta eguerdi partean desfile ikusgarria egiten dute koadrilek, gurdi eta guzti. Ondoren, guztiak biltzen dira bazkaltzera eta parrrandak ordu txikiak arte irauten du.

Desfileari lotuta, mozorro lehiaketa antolatzen da. Koadrilek, taldeek eta 14 urtetik gorako lagun guztiek hartu ahalko dute parte. Epaimahaia bi zinegotzik eta Kultura eta Jaiak lan taldeko kide batek osatuko dute. Horretaz gain, lehiaketako parte-hartzaile bakoitzak gehienez 20 puntu eman ahalko dizkie 3 talderi edo parte-hartzaileri. Jakina, talde batek ezin izango dizkio aipatu boto horiek bere buruari eman. Epai mahiak originaltasuna, mozorroan egindako lana, antzezpena eta mozorroaren osagarriak baloratuiko ditu. Lehen saria 150 eurokoa da, bigarrena 100 eurokoa eta hirugarrena 50 eurokoa.

OTSAILAK 17, LARUNBATA

12:00 Mozorro lehiaketarako izen-ematea futbito pistan. Ondoren, karrozen irteera.

14:30 Bazkari herrikoia frontoian.

17:00-19:30 Los Pasai txaranga.

19:00-23:00 Musika: DJKI.

20:00 Mozorroen lehiaketako sariak dantzaldian.

ZIORDIA

Valbuenarekin ihote festa bihar Ziordian

Helduen ihote ospakizuna bihar izanen da Ziordian, otsailaren 17an, larunbatean. Arratsaldean koadrilaka mozorrotuko dira ziordiarak, eta 19:30ak aldera aterako dira kalera, poteora. Bapo afaldu ondoren, Pantxo Valbuenaren kontzertuarekin dantzan jarriko dira guztiak.



OLAZTI



ITURMENDI - UTZITAKOA



LAKUNTZA



ARRUAZU - AITOR SATRUSTEGI



ETXARRI ARANATZ



IRURTZUN - MAIALEN HUARTE



LIZARRAGA



ALTSASU



UHARTE ARAKIL



UNANU



ARBIZU



LAKUNTZA - JONE ARETA



ETXARRI ARANATZ



IRURTZUN - MAIALEN HUARTE



LAKUNTZA



ALTSASU



LIZARRAGA



ALTSASU



OLAZTI



UHARTE ARAKIL



ETXARRI ARANATZ



LAKUNTZA



ALTSASU



ZIORDIA - UTZITAKOA





OLAZTI



ALTSASU



LOPENA - UTZITAKOA



UHARTE ARAKIL



ITURMENDI - UTZITAKOA



OLAZTI



URDIAIN - FRANCIS



ALTSASU



UNANU



IRURTZUN - MAIALEN HUARTE



UNANU



ARBIZU



ALTSASU



UNANU



ETXARRI ARANATZ



IRURTZUN - MAIALEN HUARTE



LAKUNTZA



LIZARRAGA



ETXARRI ARANATZ



UHARTE ARAKIL



LIZARRAGA



URDIAIN - FRANCIS



ALTSASU



ITURMENDI - UTZITAKOA



OLAZTI



OLAZTI



ALTSASU



UHARTE ARAKIL



URDIAIN



ALTSASU



UTRILLU



ARBIZU



LEZARRA



UHARTE ARAKIL



OLAZTI



IRONTZUIN - MAIALEN HUARTE



LAKUNTZA



OLAZTI



OLAZTI



ARBIZU



URDIAIN



ALTSASU



LAKUNTZA



UHARTE ARAKIL



URDIAIN - FRANCIS



LIZARRAGA



UHARTE ARAKIL



ALTSASU



ARBIZU



ALTSASU



URDIAIN - FRANCIS



OLAZTI



LIZARRAGA



ZIORDIA - LIZATAKOA



ITURMENDI - UTZITAKOA



OLAZTI



IRURTZUN - MAIALEN HUARTE



ALTSASU



ARBIZU



IRURTZUN - MAIALEN HUARTE



UNANU



URDIAIN - FRANCIS



ETXARRI ARANATZ



ALTSASU

Auzia antzeztuta

15 hilabete bete ziren herenegun Altsasuko auziko gazteak atxilotuak izan zirela. Hilaren 14eroko ohiturari segituz, Altsasukoak Aske herri-asanbladak ekitaldia antolatu zuen. Oraingoan literatur lehiaketan saritutako zazpi lanen irakurketa izan zen. Tarima Beltza eta lortia antzerki tailerreko aktoreek jarri zieten ahotsa kontakizunei.



BAZTERRETIK

RICARDO ARETA URRESTARAZU

El Desvan – Infernuko taberna

Seiak dira eta infernuko tabernak bere ateak zabaltzen ditu, poliki - poliki martetarrek euren tokia hartzen doaz... honelaxe dio diskoari izena ematen dion abestiaren testuak eta aipatu tabernan lau tipo oso desberdin helburu berarekin aurkituko ditugu: rock egitea.

Gabri, Iruñea, ahots nagusia eta gitarra, Dani, Brasil, gitarra bakarlaria, Juanra, Mendigorria, bateria eta beste Dani, hau Bogota, Kolonbiatik, baxuan. Beraiek El Desvan taldea osatzen dute eta euren bigarren lana aurkeztu dute, Nafarroako panorama musikalean proiektio gehien duten taldeen artean finkatuz.

Baxu eta bateria oinarri sendo baten gainean, zaindutako olerkiaz betetako melodiak janzten dituzten gitar riff potenteak aurkitzen ditugu. Aparteko jotzea azaltzen duten

momentuak nabarmentzen dira, non gitarra protagonista bihurtzen den eta estilo sorta zabala hartzen duten soinueta eramatzen gaituen. Lau martetar hauek ederki uztartzen dituzte euren rock garbia eta definituan.

Abestiek amorruaz hitz egiten digute, bidezkoak ez diren egoera politikoen aurka protestatzen dute, “*Perros de corral*” abestian bezala. Zuzeneko musika programatzen jarraitzen duten lokalak omentzen dituzte diskoa isten duen azken abestiarekin, “La taberna del infierno”. Amodioa ere aipatzen dute, nola ez, baita desamodioa ere, giza injustiziak, tratatu txarrak. Laburbilduz, dagokigun bizitza. Testuak oso zainduak daude, metaforaz beteak eta lelo itsaskorrak, burutik kendu ez direnak.

Diskoak lehenengo abestiarekin harrapatzen zaitu. Agian honengatik izan du horren harrera ona prentsa espezializatuaren artean, urteko diskorik onenaren artean aurki gaitezkeela esatera iritsi delarik. 2017ko disko onen artean kokatu dute eta MIN 2018ko hainbat sarietarako hautagaitza lortu du, artistarik onena, album onena, rock album onena, ekoizpen onena eta urteko abestia.

Estudioan hilabeteak eman ondoren lana ezagutzera eman behar da eta orain errepide eta aretoen txanda iritsi da, Madril, Santander, Teruel eta askoz gehiago. Udan musika jaialdi handietako oholza gainean ere izanen dira, hala nola, Caceresen ospatzen den Extremusic-ean. Baina zuzenaren inguruan ez dugu gaur hitz eginen, berehala Sakanan ariko baitira. Martxoaren 24an Lakuntzako kultur etxean izanen dira infernuko tabernan tartetxo bat igarotzeko gonbidapenarekin eta disko hau defendatzen ikusteko aukera izanen dugu.



Zart taldeko Ekain Alegre Lakuntzan bertsoa botatzen.

Bertsolariak Altsasuko gaztetxean ariko dira

Sakana Zirt eta Patioko banda taldeen bertso saioa izanen da gaur, 21:00etan, gaztetxean

ALTSASU

Bardoak 2018, Nafarroako taldekako bertso ekimena pasa den ostiralean Lakuntza bisitatu eta gero, gaur, Altsasu bisitatuko du. Idoia Granizo Uribarrenak, Eneko Lazkoz Martinezek eta Unai Artieda Estangak osatzen dute Sakana Zirt taldea. Berako saioaren ondoren gaurkoa bigarrena dute. Aurreko emaitzak ezagututa, hiruko sakandarrak badaki D multzotik lehiaketaren bigarren fasera Ibardin: hiru eta lau dira zazpi taldea pasako dela. Baina etxean saio txukuna egin eta puntua bertan gelditze-ko asmoz taularatuko dira.

Parean Barañaindik etorritako Patioko Banda taldea izanen dute. Makina bat bertsolarik osatzen dute taldea: Mikel Lasarte Zia, Ainara Ieregi Aranburu, Sarai Robles Vitas, Enma Murillo San Martin, Ainhoa Sabuki Arenaza, Amaia Lashe-

ras Zapata, Zuhara Zaratiegi Lopez, Idurre Villanueva del Burgo eta Beñat Astiz Isasi. Beraz, ikusi beharko da hiru taularatzen diren. Gaurko saioa antolatzaile eta aurkezlea Jon Arratibel Irurtzun izanen da.

Bestalde, Sakana Zart bertsolari taldeak asteburu lanpetua izan zuen. Baztan-Malerrekatik etorritako Addams familia bertsolari taldearekin neurtu ziren Lakuntzan ostiralean. Giro onean aritu ziren bertsolariak. Jokoa zegoen puntua bisitarien eraman zuten. Igandean, berriz, Barañaingo Haizea elkartearen Barañetak taldearekin neurtu zen Sakana Zart hirukoa. 40 bertsozaleren aurrean aritu ziren bi taldeak eta puntua etxera ekarri zuten sakandarrek. Addams familia eta Sakana Zart taldeek puntu bana dute. E multzoko azken neurketan, bihar, erabakiko da zeinek egiten duen aurrera.

Zurekin,
aukeratzen duzunera.

SUNSUNDEGUI
ACTIVUD.



Haimar Agirre Lopez, Amets Oteiza Aranguren, Javier Diaz Zelaia, Mikel Adur Lakuntza Bakaikua, Iruñe Goikoetxea Jaka eta Iñaki Cabrera Ojeda, Altsasu institutuko DBHko 4. mailako ikasleak.

“Ostiral arratsaldea galtzeagatik pixka bat eroturik gaudela uste dute”

Jakin-mina: gazteen garapen intelektual eta pertsonala babesteko Jakiunderen proposamena da. Itzal handiko hainbat adituren hitzaldi eta erakustaldiez osatutako diziplina anitzeko programa da eta Altsasu institutuko sei ikaslek eman zuten izena. Beste ikastetxeetan gehiago izan ziren. Baina zozketa bidez aukeratuak izan ziren sakandarrak. Esperientziaren berri eman digute.

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

1 Jakiunderen antolatutako duen Jakin-mina hitzaldi zikloan parte hartzen ari zarete. Nolaz izan zenuten haren berri?

Tutoreak jakinarazi zigun eta ea apuntatu nahi genuen galde-tu zigun. Guk eman genuen izena, besteek ez zuten nahi. Gaiak interesgarriak zirelako eman genuen izena.

2 Jakin-mina hitzaldi sorta bat da. Noiz eta non dira?

Azarotik martxora, hilean behin, ostiraletan, 17:30ean normalean, Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP). Autobusez goaz.

3 Aurreneko saioa, oker ez banago, azaroan: ekonomiaz, eta ingelesez. Zeren inguruan?

Ekonomia eta historia ikasi eta biak nahasten dituen NUPEko

irakasle batek nola ikasi zuen azaldu zigun. Gero haien arteko harremanaz aritu zen. Ingelesezt zenez gutxiago ulertu genuen, baina zerbait bai. Ekonomia eta historia nahasketa, beste hitzaldi batzuk baino interesgarriagoa izan zen (batzuk buruaz ezetz badiote ere).

4 Bigarren hitzaldiak, zer gai landu zuen?

Ea kanpotarrak onartu behar ditugun edo ez, horrek dakartzan arazoak eta abar. Horretarako, bi istorio kontatu zituen gaiarekin erlazionatuta.

5 Hurrengo hitzaldia, ilbeltzekoa, zeren inguruan izan zen?

Adimen artifiziala. Makina batek pentsa dezake? Erantzuna: batzuetan bai, besteetan ez. Bere iritziz, pentsa dezakete,

baina makinak bezala, ez pertsonak bezala.

6 Otsaileko hitzaldia zeren ingurukoa izan zen?

Artxibo bat zer den, dokumentuak eta halakoak gordetzen diren tokia.

7 Azken saioan zertaz ariko da?

Nutrizioaz: gaztea naizenez edo zer jan dezaket.

8 Hitzaldien ondoren hizlariari galderak egiteko aukera duzue? Bai, egin ditugu.

9 Orain arteko hitzaldietatik zein da zure gogokoena? Zergatik?

Iñ. Adimen artifiziala. Gaia asko gustatzen zait, gainera, halako karreraren bat ikasi nahi dut.

H. Adimen artifiziala ere. Irakasle horrek besteek baino hobeto prestatu zuen, gehiago irakatsi zigun. Gai interesgarria da.

Ir. Biekin ados, gairik interesgarriena izan da.

MA. Niretako errefuxiatuena. Hausnarketarako, Europa mailan gehiago pentsatzea. Egungo gauzakin hausnarketak egiteko.

A. Errefuxiatuena izan zen hoberena. Hausnarteko balio izan zigun eta, gainera, nahiko ongi irakatsi zuela uste dut.

10 Zer esaten dute zuen ikaskideek?

Ostiral arratsaldea galtzeagatik pixka bat eroturik gaudela.

11 Heldu den ikasturtean DBH 4n dagoen bati zer esanen zeniokete?

Apuntatzeko!

Osorik: www.guaixe.eus

Bazkide zozketa

OTSAILEKO SARIAK:

1. SARIA:
EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA
EUREKA ZIENTZIA MUSEOA: 2 SARRERA
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO
DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETZ DOAN

2., 3. ETA 4. SARIA:
DONOSTIAKO AQUARIUM MUSEOA:
SARRERA BANA
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO
DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETZ DOAN